

BESTELAKO XEDAPENAK

INGURUMEN, LURRALDE PLANGINTZA ETA ETXEBIZITZA SAILA

1331

EBAZPENA, 2017ko azaroaren 3koa, Ingurumeneko sailburuarena, Erandioko udalerrian (Bizkaia) pilak aldi baterako biltegitzeko eta sailkatzeko jarduerarako, botoi-pilak eta merkurioa duten osagaiak destilazio-kondentsazio bidez berreskuratzekeo tratamendurako eta lanparetako tresna elektriko eta elektronikoen hondakin trinkoen tratamendurako ingurumen-baimen integratua Recypilas SAri ematen diona.

Ingurumeneko sailburuordearen 2008ko apirilaren 30eko ebazpenaren bidez Indumetal Recycling SA enpresari ingurumen-baimen integratua eman zitzaion Erandioko udalerrian txatar konplexuak, tresna elektriko eta elektronikoen hondakinak (TEEH) eta bestelako hondakin ez-arriskutsuak tratamendu fisikoaren bidez balioztatzekeo jarduerarako.

Ingurumen, Lurralde Plangintza, Nekazaritza eta Arrantzako sailburuaren 2009ko irailaren 3ko Aginduaren bidez Indumetal Recycling SAK Ingurumeneko sailburuordearen 2008ko apirilaren 30eko Ebazpenaren aurka jarritako gora jotzeko errekurtsoa ebatzi zen.

2010eko apirilaren 19ko ebazpenaren bidez aldatu eta gauzatu zen Indumetal Recycling SA enpresari Erandioko udalerrian txatar konplexuak, tresna elektriko eta elektronikoen hondakinak (TEEH) eta bestelako hondakin ez-arriskutsuak tratamendu fisikoaren bidez balioztatzekeo jarduerarako emandako ingurumen-baimen integratua. Eta 16-01-000000000074 baimen-zenbakia esleitu zitzaion.

2014ko azaroaren 6an Recypilas SAK ingurumen-baimen integratua eskatu zuen pilak aldi baterako biltegitzeko jarduerarako eta botoi-pilak eta merkurioa duten osagaiak destilazio-kondentsazio bidez berreskuratzekeo tratamendurako.

2014ko abenduaren 18an onartu ziren Batzordearen 1357/2014 Erregelamendua (2008/98/EE Zuzentarauaren II. eranskina ordeztekoa) eta Batzordearen 2014/955/EB Zuzentaria (Hondakinen zerrendari buruzko 2000/532/EE Erabakia aldatzekoa), Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2008/98/EE Zuzentarauarekin bat etorritz.

2015eko otsailaren 20an, Gailu elektriko eta elektronikoen hondakinei buruzko 110/2015 Errege Dekretua onartu zen.

Aipatutako arau horren bosgarren xedapen iragankorrak tresna elektriko eta elektronikoen hondakinak kudeatzeko baimenak berrikusi beharra ezartzen du bere 37. artikuluan aurreikusita-koarekin bat etorritz.

2015eko martxoan, Euskal Autonomia Erkidegoko Hondakinak Prebenitzeko eta Kudeatzeko 2020rako Plana onartu zen.

2015eko martxoaren 13an, 180/2015 Errege Dekretua, Estatuaren lurraldearen barruko hondakinen lekualdaketa arautzen duena, onartu zen.

2015eko ekainaren 25ean, Lurzorua Kutsatzea Saihestu eta Kutsatutakoa Garbitzeko Legea (ekainaren 25eko 4/2015 Legea) onartu zen.

2016ko irailaren 23an, pila alkalinoak eta gatzeko pilak kudeatzeko ezarritako gaitasuna urteko 10.000 tonara handitzea eskatu zuten.

2016ko abenduaren 31n, Estatuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen abenduaren 16ko 1/2016 Legegintzako Errege Dekretua, Kutsaduraren Prebentzio eta Kontrol Integratuari buruzko Legearen testuategina onartzen duena.

Recypilas SAren jarduera ez badago ere abenduaren 16ko 1/2016 Legegintzako Errege Dekretuak onartutako Kutsaduraren Prebentzio eta Kontrol Integratuari buruzko Legearen testuateginaren aplikazio-eremuaren barruan, Indumetal Recycling SAren instalazioarekin lotura teknikoa dute haren instalazioek, horrenbestez, egokia da Recypilas SAri, instalazioaren zati gisa, ingurumen-baimen integratu propioa ematea.

Ingurumen-organo honek ebazpen hau emateko eskumena du, hain zuzen ere honako hauetan xedatutakoari jarraikiz: Euskal Autonomia Erkidegoko Ingurugiroa Babesteari buruzko otsailaren 27ko 3/1998 Lege Orokorra; Euskal Autonomia Erkidegoaren Administrazioari sailak sortu, ezabatu eta aldatzen eta horien egitekoak eta jardun-arloak finkatzen dituen Lehendakariaren azaroaren 26ko 24/2016 Dekretua, eta Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen dituen apirilaren 11ko 77/2017 Dekretua.

Honako araudi hau ikusi da: Euskal Herriko Ingurugiroa Babesteko otsailaren 27ko 3/1998 Lege Orokorra; abenduaren 16ko 1/2016 Legegintzako Errege Dekretua, Kutsaduraren prebentzio eta kontrol integratuari buruzko Legearen testuategina onartzen duena; Industriako Isurpenen Erregelamendua onartu eta Kutsaduraren Prebentzio eta Kontrol Integratuari buruzko uztailaren 1eko 16/2002 Legea garatzen duen urriaren 18ko 815/2013 Errege Dekretua; Ingurumen Ebaluazioari buruzko abenduaren 9ko 21/2013 Legea; Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen dituen apirilaren 11ko 77/2017 Dekretua, eta Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legea eta aplikazio orokorreko gainerako arauak.

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– Erandioko udalerriko Recypilas SA enpresari (egoitza soziala Cantera errepideko 11 zenbakian eta A-48549422 zenbakidun IFK) ingurumen-baimen integratua ematea, Erandioko udalerrian pilak aldi baterako biltegitratzeko eta sailkatzeko jarduerarako, botoi-pilak eta merkurioa duten osagaiak destilazio-kondentsazio bidez berreskuratzeko tratamendurako eta lanparetako tresna elektriko eta elektronikoen hondakin trinkoen tratamendurako, Ebazpen honen Bigarren atalean zehaztutako baldintzei jarraituz.

Jarduera hori Indumetal Recycling SAren instalazioaren zati bat da, eta azken hori jasota dago Kutsaduraren Prebentzio eta Kontrol Integratuari buruzko Legearen testuateginaren 1. eranskinean (abenduaren 16ko 1/2016 Legegintzako Errege Dekretuak onartua).

Recypilas SAren instalazioak Asua-Erandion daude, 1.645 m² inguruko nabe batean, lanparak eta pilak birziklatzeko eta hondakinak biltegitratzeko jardueren artean banatuta. Asua Berri industrialdean daude, Bilbotik 6 kilometrora.

Recypilas enpresaren ekoizpen-lerro orokorrak hauek dira: lanparak birziklatzea (deskargakoak eta HID), pilak sailkatu eta tratatzea eta hondakinak aldi baterako biltegitratzeko zentroa.

Hondakin arriskutsuak tratatzeko prozesuak:

– Deskargako lanparak birziklatzea (gaitasuna: 15 tona egunean).

- HID lanparak birziklatzea (gaitasuna: tona bat egunean).
- Pilak sailkatzea (gaitasuna: 25 tona egunean).
- Botoi-pilak eta merkurioa duten bestelako hondakinen merkurio-hondarrak destilatzea (gaitasuna: 0,2 tona egunean).

Arriskutsuak ez diren hondakinak tratatzeko prozesuak:

- Gatzeko pilak eta pila alkalinoak birrintzea (gaitasuna: 55 tona egunean).

Halaber, hondakinak transferitzeko zentroaren jarduera ere egiten du; 412 m²-ko azalera erabilgarria du beheko solairuan eta 377 m²-koa lehen solairuan, bai kudeatu beharreko hondakinak estalpean biltegitzeko, bai tratamendu-prozesuaren ondoriozko hondakin bereziak biltegitzeko. Guztira 1,5 tona hondakin ez-arriskutsu eta 135 tona hondakin arriskutsu biltegitatu ditzake.

Lanpara fluorezenteak, trinkoak eta LED motakoak kudeatzen dituzte Gailu Elektriko eta Elektronikoen Hondakinei buruzko 110/2015 Errege Dekretua, otsailaren 20koa, aplikatuz.

3.1.– Deskargako lanparak (Hg) eta lanpara fluorezenteak.

3.2.– LED lanparak.

Pila eta akumuladoreei, eta euren hondakinen ingurumen-kudeaketari buruzko otsailaren 1eko 106/2008 Errege Dekretuari jarraikiz kudeatzen dituzte pilak.

Honako prozesu hauek garatzen dituzte:

Deskargako lanparak birziklatzea:

Deskargako lanparak birziklatzeko prozesua elikatze-zintan kargatzearekin batera hasten da eta horiek hausteko eta hautsa biltzeko prozesuarekin bukatzen. Zorroak (metalezkoak eta plastikozkoak) prozesua jarraitzen dute edukiontzi batera iritsi arte.

Hauts-hondarrak dituen beira beste fase batera igarotzen da, eta bertan beste xurgaketa batez beiraren hauts fluorezentea kentzen jarraitzen da. Hautsik gabeko beira, orduan, bereizgailu batetik igarotzen da egon litezkeen burdin hondarrak bereizteko. Beste metal-bereizgailu bat dago ondoren beirak izan ditzakeen burdina ez beste metalak kentzeko.

Sortzen diren hondakin ez-arriskutsuak karea duen beira arrunta, frakzio metaliko-plastiko bat eta berriz prozesatzen den beira misto bat dira, eta hondakin arriskutsuak, aldiz, lanparen merkuriodun hautsa eta zikloiko beirazko hautsa dira.

HID lanparak birziklatzea:

HID lanparen prozesuaren bidez xedea da HID lanparen merkuriodun kapsulak gainerako osagaietatik (beira eta metalak) bereiztea.

HID lanparak tratatzeko lerroa edukiontzi baten barruan garatzen da. Merkurio-lanparak presio handian eta sodio-lanparak presio handi eta txikian sartzen dira, haien bolumena txikiagotzeko, frakzioak bereizteko eta merkurioz kutsatutako frakzioa merkurio-destilagailuan tratatzeko.

Xurgatzeko sistemak barneko airea zikloi baterantz eta ikatz aktibozko iragazkietarantz bideratzen du atmosferara isuri aurretik.

Sortutako hondakin ez-arriskutsuak karea duen beira arrunta eta metalaren frakzio bat dira, eta hondakin arriskutsua, berriz, merkurioa duten HID kapsulak.

Pilak sailkatzea:

Ekoizleen pila mix bat jaso eta hainbat tipologiaren arabera (botoi-pilak, gatzezko pilak/alkalinoak, NiCd, NiMh, Li, Li-ion, Pb) sailkatu eta bereizten dira horiek, ondoren metalak berreskuratzeko prozesu espezifikoak dituzten azken kudeatzaileei igortzeko.

Botoi-pilak eta merkurioa duten bestelako hondakinen merkurio-hondarrak destilatzea (EU2/37-97):

Prozesu horren helburua da merkurioa duten hondakinak destilatzea metal hori gainerako hondakinetatik bereizteko; hartarako, tenperatura 650-700 °C-ra igotzen da, hondakinetan dagoen merkurioa askatzeko. Geroago, hozteko fasean, gas-merkurioa kondentsatzen eta merkurio metaliko likido bihurtzen da, zeina ontzi berezi batzuetan jasotzen baita. Destilagailuak ikatz aktibozko iragazki bidezko arazte-sistema bat du. Merkurioz kutsatutako urak ere lortzen dira prozesu horretan, eta azken kudeatzaileei bidaltzen zaizkie; horrez gain, frakzio metaliko bat ere lortzen da, metalurgia espezializatu batzuetara bidaltzen dena.

Gatzezko pilak eta pila alkalinoak birrintzea (EUX/006/08):

Prozesu honen helburua da gatzezko pilak eta pila alkalinoak birrintzea burdinazko osagaiak gainerakoetatik bereizteko.

Pilak tobera batean kargatzen dira, eta horrek errota bat elikatzen du zinta baten bidez. Birrintzearen ondoriozko frakzioa bereizgailu elektromagnetiko (Overband) batetik igarotzen da, eta bertan burdinazko zatia gainerakotik bereizten da.

Hondakinen transferentzia-zentroa:

Jaso, egokitu, biltegitatu eta azken kudeatzaileei bidaltzeko moduko hondakinak dira.

Atmosferara isurtzeko lau foku daude honako hauen gasak tratatzeko: «MRT destilagailu-labea, fluoreszenteak birrintzeko makina eta MRT prozesadorea», «Destilagailuaren gela» «pila alkalinoen errota» eta iragazte-sistemak dituzten kable-mozketa.

Recypilas SAK ur beltzak eta euri-urak baino ez ditu isurtzen.

Ur beltzak Bilbo Bizkaia Ur Partzuergoaren kolektorera bidaltzen dira Indumetal Recycling SArenekin batera, haren ingurumen-baimen integratuko baldintzei jarraikiz betiere.

Instalazioak 1.077.136 kW inguruko kontsumo elektrikoa du orduko (funtsean pilak birrintzea eta birrintzeko makina –crusher–).

Recypilas enpresak erabiltzen dituen gainerako instalazio osagarriak Indumetal Recycling SArenekin dira, eta enpresa horrek kudeatzen ditu zuzenean. Instalazio hauek zehazki: eskorgetarako gasolio-biltegia, transformazio-zentroa eta kutsatuta egon daitezkeen euri-urak arazteko sistemak.

BREFean hondakin-kudeatzaileen industriarako jasotako teknika erabilgarri onenak aplikatzen dira jardueran (Reference Document on Best Available Techniques in the Waste Treatments Industries, 2006ko abuztua) enpresa-kudeaketako sistemai, eragiteko prozedura orokorrei eta kutsadura tratatzeko sistemai dagokienez. Horrez gain bi dokumentu hauetan jasotako neurriak ere aplikatzen dira: Reference Document on Best Available Techniques on the General Principles of Monitoring (2002ko azaroa) eta Draft Reference Document on Best Available Techniques on Emissions from Storage (2005eko urtarrila).

Bigarrena.– Honako baldintza hauek eta eskakizunak ezartzea Recypilas SA enpresak Eran-dioko udalerrian sustatutako pilak aldi baterako biltegitratzeko jarduera eta botoi-pilak eta merkurioa duten osagaiak destilazio-kondentsazio bidez berreskuratzeko tratamendurako jarduera ustiatzeko:

A) Zazpiehun mila (700.000) euroko erantzukizun zibileko aseguru bat eduki beharko da, honako hauek estaliko dituen: hirugarren pertsoneri edo horien ondasunei sortutako balizko kalteengatiko kalte-ordainak, eta baimen honek onartutako jardueraren ondorioz aldatuko den ingurumena konpondu eta berreskuratzeko kostuak.

Aseguru horren zenbatekoa urtero eguneratu ahal izango da, aurreko 12 hilabeteetako kontsumo-prezioen indizearen arabera (KPI) handituz.

B) Hirurogeita hamasei mila eta laurogeita hamar (76.090) euroko fidantza eduki beharko du, Hondakinei eta Lurzoru Kutsatuei buruzko uztailaren 28ko 22/2011 Legearen 20. artikulua (4.b) letran ezarritakoari jarraikiz. Fidantza horren zenbatekoa zehazten da, hondakinak tratatu eta biltegitratzeko gehieneko gaitasunen arabera.

Fidantza horren zenbatekoa urtero eguneratu ahal izango da ingurumen-organoak horrela eskatuz gero, aurreko 12 hilabeteetako kontsumoko prezio indizearen arabera (KPI) handituz.

Jarritako fidantza ez da itzuliko, Ingurumen Sailburuordetzak hondakin arriskutsuak kudeatzeko jarduera uztea baimendu arte edo dagokionean jarduera uzteko finkatutako baldintzak bete arte; baldintza horiek, betiere, lurzuaren kalitate-adierazpenean ezartzen diren betekizunak barne hartuko dituzte.

Halaber, Kosten uztailaren 28ko 22/1988 Legearen 88.4 artikulua xedatutakoa betez eta aipatu legearen 85. artikuluan eta onartuko den garapen-araudian zehaztutako irizpideak jarraituz, Eusko Jaurlaritzako Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Sailak fidantza bat eskatu ahal izango du ezarritako isurketa-baldintzak bete daitezen.

C) Administrazioarekiko harremanez arduratuko den pertsonaren gainean Ingurumen Sailburuordetzari eman dizkion datuetan aldaketarik balego, Recypilas SAK aldaketa horien berri emango du.

D) Babes eta zuzenketa-neurriak sustatzaileak Ingurumen Sailburuordetza honetan aurkeztu dituen agirietan aurreikusi bezala burutuko dira, indarrean den araudiaren arabera eta ondorengo zenbakietan ezarritakoari jarraituz:

D.1.– Hondakinak onartu, hartu, ikuskatu eta biltegitratzeko baldintzak eta kontrolak.

a) Baimen honen D.1.1 atalean jasotako hondakinak onartu aurretik, Recypilas SA enpresak baimenaren xede diren instalazioetan hondakin horiek jaso eta balioztatze aukera dagoela egiaztatu beharko du.

b) Lantegian tratatu beharrekotzat jotzen den hondakin-jatorri bakoitzeko, eragileak hondakin hori onartzeko eskabidea bidali beharko du Ingurumen Sailburuordetzara, horrek onetsi dezan, eta, behar izanez gero, hondakina onartzeko parametro mugatzaile edo baldintzatzaileen proposamena erantsiko da.

c) Hondakin zehatz bat onartzeko aukera egiaztatu eta gero, enpresak tratamendu-kontratua igorriko dio hondakinaren titularrari, onarpenaren baldintzak ezartzen dituen.

d) Edozein motako jarduera abiatu aurretik, deskontaminazioaren ostean tresna elektriko eta elektronikoetatik erretiratutako hondakin bakoitzaren tratamendu-kontratua izan beharko du Recypilas SA enpresak, baimendutako kudeatzaileak emandakoa.

e) Autosufizientzia- eta gertutasun-printzipioei jarraikiz kudeatu beharko dituzte hondakin horiek.

f) Halaber, birziklatu edo balioztatu daitezkeen tresna elektriko eta elektronikoetatik bereizitako edo erretiratutako hondakinak helburu horietara bideratuko dira, Hondakinei eta Lurzoru Kutsatuei buruzko uztailaren 28ko 22/2011 Legearen 8. artikuluan ezarritakoa betez. Recypilas SA enpresak bete beharreko tratamendu-kontratuetan argi eta garbi azaldu behar da.

g) Hondakina jaso aurretik, baldintza horiek betetzen direla egiaztatu beharko da, eta hondakin arriskutsuei dagokienez, jasotze hori formalizatuz egingo da hori. Horretarako, identifikaziorako agirian, edo horren baliokidea den agiri ofizialean, kudeatzaileari dagokion atala bete beharko da.

h) Ezin izango dira onartu baimen honetan adierazitakoez bestelako hondakinak. Nolanahi ere, hondakin mota gehiago kudeatu ahal izateko, beharrezkoa izango da Ingurumen Sailburuordetzaren onarpena lortzea aldez aurretik, eta ebazpen honetako I. zenbakian ezartzen dena betetzea.

i) Pieza eta osagai berrerabilgarriak helburu horretara zuzendu beharko dira lehentasunez, industria-segurtasuneko araudiaren arabera merkaturatuta.

j) Berrerabili ezin diren piezak eta osagaiak birziklatuko dira, frakzio metalikoak eta plastikoak eskuratuz eta, ondoren, xede horrekin, baimendutako hondakin-kudeatzaile bati emanaz, edo, hala badagokio, dagokion hondakin motaren balioztatzaileei. Halaber, eguneratuta eta administrazioaren eskura egon beharko da Recypilas SAren eta enpresa balioztatzaileen artean dagoen kontratu-harremanaren kopia.

D.1.1.– Onar daitezkeen hondakinak.

Instalazioan Europako zerrendan (Europako Hondakin Zerrenda, 2014ko abenduaren 18ko Batzordearen Erabakiz argitaratua, zeinaren bidez aldatu egiten baita hondakinen zerrendari buruzko 2000/532/EE Erabakia) hondakin hauek tratatu ahal izango dira, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2008/98/EE Zuzentarauarekin, hurrengo epigrafearekin, bat etorritz. Betiere hondakin horiek atal honetan adierazitako onartzeko eskakizun espezifikoak eta organo honek balidatutako onarpen-agirian ezarritako onartzeko eta jasotzeko irizpideak betetzen badituzte:

Pilak sailkatzeko prozesua:

Hondakina	EHZ kodea	t/urtean
Pila-nahasketa	200133*	6.000
Pila-nahasketa	200134	2

3.3.1. taula.

Botoi-pilak eta merkurioa duten beste hondakin batzuk destilatzekeo prozesua:

Hondakina	EHZ kodea	t/urtean
Botoi-pilak Hg-tan	160603*	25

Aldi baterako biltegitratzea:

2018ko martxoaren 12a, astelehena

Hondakina	EHZ kodea	t/urtean
Botoi-pilak Hg-tan	160603*	25
Berunezko bateriak	160601*	600
Ni-Cd-zko metagailuak (pila zapalarekin, gabe eta beste batzuk)	160602*	150
Iragazkiko hauts fluoreszenteak (destilatuta edo destilatu gabe)	191211*	30
Nikel metalhidrurozko pilak eta metagailuak	160605	4
loi litiozko pilak eta metagailuak	160605	2
Litiozko pilak	160605	2
Katalizatazaileak	160801	10
Plastikoak (kolpe-leungailuak...)	160119	50
Burdinazko metalak	160117/191202	10
Metal ez-burdinazkoak	160118/191203	10

Gatzezko pilen eta pila alkalinoen tratamendua:

Hondakina	EHZ kodea	t/urtean
Gatzezko pilak eta pila alkalinoak	160604	10.000

Era berean, tresna elektriko eta elektronikoen hondakin hauek kudeatuko dira Gailu Elektriko eta Elektronikoen Hondakinei buruzko 110/2015 Errege Dekretua, otsailaren 20koa, betez:

Lanparen tratamendua (hodi fluoreszenteak eta lanpara trinkoak):

Hondakina	EHZ kodea	t/urtean
Lanpara mixa	200121*-31*	1.000

HID lanparen tratamendua:

Hondakina	EHZ kodea	t/urtean
HID lanparak	200121*-31*	70

Aldi baterako biltegitratzea:

Hondakina	EHZ kodea	t/urtean
Lanpara fluoreszenteak	200121*-31*	55

2018ko martxoaren 12a, astelehena

I. eranskinen GEEen kategoriak	III. eranskinen GEEen kategoriak	F	Tresna elektriko eta elektronikoen hondakinen tratamendu taldeak	Proz. Espez. 110/2015 EDko XIII. eranskina	EZH TEEH kodea	110/2015 EDko XVI. eranskinen tratamendua	22/2011 Legearen I. eta II. eranskinetako tratamendua
5.1. Gasezko deskargako lanparak	3.1. Deskargako lanparak (Hg) eta lanpara fluoreszenteak.	3	31*. Deskargako lanparak, LED ez direnak eta fluoreszenteak.	G5	200121*-31*	R1201, R1203, R1205, R1213,	R 12
5.2. LED lanparak	3.2. LED lanparak	3	32. LED lanparak	G1	200136-32 160214-32	R1201, R1203, R1205, R1213	R 12

Tratamendu-lerroen TEEHen tratamendu partzialeko gaitasunak eta instalazioaren tratamenduko guztizko gaitasuna (tona egunean) honako hauek dira:

Tratamendu-lerroa	110/2015 EDko XVI. eranskinen tratamenduarekin bat dator	TEEHen tratamendu taldeak	Tonak eguneko
Lanparak deskargatu, egokitu eta sailkatzea.	R1201 TEEHak sailkatu, bereizi edo taldekatzea	31*. Deskargako lanparak, LED ez direnak eta fluoreszenteak. 32.- LED lanparak	20
Birrintzeko makina (lanpara fluoreszenteen eta trinkoen tratamendua)	R1203. TEEHen osagaiak bereiztea, barne hartuta substantzia arriskutsuak kentzea eta fluidoak, likidoak, olioak eta nahasteak ateratzea XIII. eranskinaren arabera. R1205. Tratamendu mekanikoa edo zatikatzea hondakinen neurria edo bolumetria egokitzeko ondorengo beste tratamendu batzuetarako. R1213. TEEHen materialen frakzio balioztagarriak lortzeko prozesuak, birziklatzeko edo balioztatzeke.	31*. Deskargako lanparak, LED ez direnak eta fluoreszenteak.	14
		32. LED lanparak	1
HID (HID lanparen tratamendua)	R1203. TEEHen osagaiak bereiztea, barne hartuta substantzia arriskutsuak kentzea eta fluidoak, likidoak, olioak eta nahasturak XIII. eranskinaren arabera ateratzea. R1205. Tratamendu mekanikoa edo zatikatzea hondakinen neurria edo bolumetria egokitzeko ondorengo beste tratamendu batzuetarako. R1213. TEEHen materialen frakzio balioztagarriak lortzeko prozesuak, birziklatzeko edo balioztatzeke.	31*. Deskargako lanparak, LED ez direnak eta fluoreszenteak.	1

Sailkatzeko guztizko gaitasuna, 20 tona egunean.

Tratatzeke guztizko gaitasuna, 17 tona egunean.

Instalazioaren TEEHen gehieneko biltegitratze-gaitasuna (tonak eta metro kubikoak) eta tratamendu taldearen arabera gehieneko gaitasuna (tonak eta metro kubikoak) honako hau da:

Tresna elektriko eta elektronikoen hondakinen tratamendu taldeak	Tonak	M3
31*. Deskargako lanparak, LED ez direnak eta fluoreszenteak.	64	960
32. LED lanparak	1	12

Biltegitratzeko gehieneko gaitasuna, 65 tona.

Nolanahi ere, baimen honetatik kanpo egongo dira kutsatuta dauden edo ondorengo arris-kugarritasun ezaugarriak egotz dakizkiekeen substantzien osagaiak edo hondakinak dituzten hondakinak:

- Hondakin arriskutsu leherkorrak.
- Hondakin arriskutsu infekziosoak.
- Substantzia erradioaktiboak dituzten hondakinak.

Recypilas SAK industrian sortutako etxeko zaborrak eta merkataritza-hondakinak kudeatu ahal izango ditu (20. taldeko EHZ kodea duten hondakinak), ebazpen honetan adierazi direnak soilik, baldin eta dagozkion udal-ordenantzen arabera ez bada beharrezkoa hondakinok hondakinen kudeaketa-sistema publiko bati entregatzea.

D.1.2.– Hondakinen sarrera kontrolatzea.

a) Recypilas SA enpresak egiaztatu beharko du hondakin arriskutsuak Erandioko udalerrian kokatutako instalazioetaraino eramateko erabilitako garraioak martxoaren 13ko 180/2015 Errege Dekretua, Estatuaren lurraldearen barruko hondakinen lekualdaketa arautzen duena, betetzen duela. Garraioan antzemandako edozein gorabehera berehala jakinarazi beharko dio Ingurumen Sailburuordetzari, egoki deritzon behar beste neurri har ditzan.

b) Instalaziora tratatzera iristen diren hondakinen kontrol bat izan beharko da, hondakin horiek ebazpen honetako baldintzen arabera instalazioan onartuko direla bermatzeko. Kontrol horretan, Ingurumen Sailburuordetza honek onartutako tratamendu-kontratuan ezarritako egiaztapena egin beharko da.

c) Hondakin zehatz bat onartzeko aukera egiaztatu eta gero, enpresak onespeneraren egiaztageria igorriko dio hondakinaren titularrari, onarpenaren baldintzak ezartzen dituena. 2020ra Euskal Autonomia Erkidegoko Hondakin Arriskutsuak Prebenitzeko eta Kudeatzeko Planeko Helburu Estrategikoak beteko direla bermatze aldera, hondakinak ebazpen honen babesean emandako tratamendu-kontratu baten kargura bidali aurretik, ingurumen-organo honek baliozkotu beharko du kontratu hori.

Recypilas SAK ezingo du kudeatu beharreko hondakinik jaso, organo honek aldeztu aurretik tratamendu-kontratua baliozkotzen ez bada; baliozkotze hori 15 egun naturaleko epean egin beharko da, kontratua jasotzen denetik hasita. Epe hori igarota, ez bada horri buruzko berariazko irizpenik izan, hura aldekoa dela ulertuko da. Baliozkotu beharreko tratamendu-kontratuan, besteak beste, honako datu hauek jaso beharko dira: parametro mugatzaileak, hondakinen deskribapena eta iraungitze-data, baldin eta hondakina ez bada entregatzen.

d) Hondakin bat jaso ahal izateko parametro mugatzaileak betetzen ez direla eta lantegian hartu ezin denean, Ingurumen Sailburuordetzari berehala eman beharko zaio jazoera horren eta jatorria, kopurua, enpresa garraiolaria, onartua ez izateko arrazoiak, onartu ez den hondakinaren helburua eta bestelako jazoeren inguruko datuen berri.

e) Aldez aurretik nolabaiteko manipulaziorik izan duten, hondaturik dauden edo osagaien bat kendu zaien tresnak jasoz gero, horren berri jaso beharko da, onartzeko baldintzak betetzen ez dituen partidaren jatorria zehaztuta, eta, hala badagokio, Organo honen baimena aurretik eskatu beharko da hondakin horiek kudeatu ahal izateko. Jaso zirenetik 5 egun natural igaro ondoren ez bada horri buruzko berariazko irizpenik, hura aldekoa dela ulertuko da.

f) Instalazioak hondakinak pisatzeko baskula izango du.

g) Aurreko atalean aipatutako agiriak ingurumen organoari bidaliko zaizkio, erakundeentzako IKS-eeM Sistemaren bertsioa erabilita.

D.1.3.– Zamalanak.

Zamalanak lurzoru estankodun eremuetan egingo dira. Eremu horrek beharrezko isurialdeak eta balizko isuriak biltzeko sareak izan beharko ditu, horiek kutxeta itsurantz edo biltzeko putzurantz zuzentzeko, bidean ibilgailuaren azpitik pasatu ez daitezen edo gai arriskutsuen beste ibilgailu batzuetara hurbildu ez daitezen.

D.1.4.– Jasotako hondakinak biltegitratzea.

a) Hondakinak eremu konfinatuetan, teilapean, biltegitratuko dira. Eremu horiek azalera iragazgaitzak ere izango dituzte, eta karga aurreikusgarriak jasateko gauza izango dira. Horrez gain, isuriak biltzeko instalazioak ere izango dituzte.

b) Biltegitratutako ontzi guztiek etiketatuta egon beharko dute, eta etiketak argia, irakurtzeko modukoa eta ezabaezina izan beharko du; etiketan, gutxienez, dituen hondakinen identifikazio-kodea, ontziraketa-data eta hondakin horiek izan ditzaketen arriskuen izaera agertu beharko dira.

c) Hondakinak desagertu, galdu edo isurtzen baldin badira, jazoera hori berehala jakinarazi beharko zaie bai Ingurumen Sailburuordetzari bai Erandioko Udalari.

d) Gailu Elektriko eta Elektronikoen Hondakinei buruzko 110/2015 Errege Dekretuaren, otsailaren 20koaren, VIII. eranskinean jasotako eskakizun teknikoak bete beharko dituzte gutxienez aldi baterako biltegitratzeari dagokionez.

e) Balioztatu beharreko hondakin ez-arriskutsuak biltegitratzeko gehieneko denbora bi urtekoa izango da.

f) Hondakin arriskutsuak biltegitratzeko gehieneko denbora sei hilekoa izango da.

g) Hondakinak biltzeko instalazioan, TEEHak frakzio eta tratamendu taldetan bereiziko dira, 110/2015 Errege Dekretuaren VIII. eranskinaren 1. taularen arabera: «GEEen kategorien, TEEHen bilketa-frakzioen eta EHZ-TEEH kodeen arteko baliokidetasunak». Halaber, TEEH biltegitratzeko eremu berezi bat sortu beharko da, berrerabiltzeko prestatzeaz arduratzen diren eragileek ikuskatzeko baldintza egokiekin.

D.1.5.– Kudeatutako hondakinen datu-erregistroa.

a) Recypilas SA enpresak artxibategian erregistratu eta gorde beharko ditu onarpen-eskaerak, tratamendu-kontratuak (lehen onarpen-agiriak) eta identifikazio-agiriak (lehen kontrolerako eta jarraipenerako agiriak), edo agiri ofizial baliokideak, hiru urtean gutxienez (uztailaren 28ko 22/2011 Legea, hondakinei eta lurzoru kutsatuei buruzkoa, 40. artikulua).

Adierazi berri diren agirien kontrol egokia errazteko, Recypilas SAK IKS-eeM sistema informatikoa erabiliz bidali eta jasoko ditu agiri horiek.

b) Recypilas SAK artxibategi telematiko bat izango du, hurrenkera kronologikoan honako datu hauek jasotzeko, gutxienez:

– Onartutako hondakin arriskutsuen jatorria.

- Partida bakoitzaren onarpen- eta jasotze-datak eta sortutako identifikazio-agiria.
- Baimendutako azken kudeatzaileari egindako bidalketen datak, eta kudeatzaile hori eta sortutako identifikazio-agiria identifikatzen dituzten datuak.
- Hala badagokio, jardueraren garapenean sortutako hondakinak identifikatzeko kodea, osaera, jatorria eta kantitateak, eta hondakin horiek nora eramatea aurreikusita dagoen adieraziko dira. Baimendutako kudeatzailearen onarpen adierazia izan beharko du.
- Sortutako hondakin arriskutsuen kudeatzaileari noiz bidali zaion, kudeatzaile horren eta sortutako identifikazio-agiriaren identifikazio-datuak.

Halaber, kudeatu beharreko TEEHei dagokienez, artxibategi telematikoa bat etorriko da 110/2015 Errege Dekretuaren XI. eranskinarekin. Bertan, hurrenkera kronologikoan honako datu hauek jasoko dira gutxienez:

- A) Sarrera.
 - a) TEEHa noiz entregatu den.
 - b) TEEHa entregatu duen erabiltzailearen edo erakundearen identifikazioa (kasuan-kasuan aplikatutakoaren arabera): TEEHen partikular/banantzaile/garbigune/ekoizle-sare/ekoizle profesionala.
 - c) Izena (sozietate-izena), helbidea, autonomia-erkidegoa, IFZ, ingurumeneko identifikazio-zenbakia, Hondakinen Ekoizpen eta Kudeaketa Erregistroko inskripzio-zenbakia.
 - d) Garraiolaria (balego): Izena (sozietatearen izena), IFZ, helbidea, autonomia-erkidegoa eta kudeatzailearen kodea.
 - e) Entregatutako tresna motak eta marka.
 - f) Pisua.
 - g) EHZ TEEH kodea.
 - h) Erabilera (etxekoa/profesionala).
 - i) Serie-zenbakia (ahal den guztietan).
 - j) TEEHren etiketaren edo instalazioan TEEHak gordetzen diren edukiontzia-erreferentzia-zenbakia.
 - k) Oharrak eta gorabeherak, adibidez funtzionamendu-egoerari, berriz erabiltzeko aukerari buruzkoak, betetik dagoen, etab.

Tresna txikiei eta lanparei dagokienez, sarrerari buruzko banako informazio hori ez da beharrezkoa izango, eta horren ordez frakzio horretarako berariazko edukiontzien identifikazioa beharko da.

- B) TEEHak edukiontzi edo kaiolatan ateratzea.
 - a) Edukiontzia edo kaiola instalaziotik irteteko data.
 - b) EHZ-TEEH kodea.
 - c) Edukiontzi-erreferentzia, TEEHen irteera-pisua, edukiontzia.
 - d) Garraiolariaren identifikazioa.

e) Helmuga (hondakinak kudeatzeko instalazioaren datuak).

1.– Helbidea eta autonomia-erkidegoa.

2.– Mota: Berrerabiltzeko prestatzeko zentroa (BPZ), kargaren transferentzia- edo bilketa-zentroa, tratamendu espezifikorako instalazioa.

3.– Ingurumeneko identifikazio-zenbakia.

4.– IFZ.

5.– Ekoizpen- eta kudeaketa-erregistroko inskripzio-zenbakia.

f) Bildu eta kudeatzen duen erakundeari buruzko informazioa (esleipen-bulegoa edo biltzeko instalazioak kontratatutako kudeatzailea).

g) Esleipen-bulegoaren bilketaren erreferentzia-zenbakia.

h) Biltzeko instalaziotik bilketa finantzatzen duen erantzukizun hedatuko sistema.

D.1.6.– Estatuz kanpotik inportatutako hondakinak.

Baldin eta kudeatu beharreko hondakinak beste estatu batzuetakoak badira, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2006ko ekainaren 14ko 1013/2006 Erregelamenduan (hondakinen lekualdaketei buruzkoa) ezarritakoa bete beharko da.

Horrez gain, dela inportatu beharreko hondakinak dela inportatutako hondakinak balioztatzeko edo deuseztatzeko tratamenduaren ondoren helmugako instalazioan lortutako korrante esanguratsuren bat zabortegean ezabatzea aurreikusten bada, kontsulta bat egin beharko da organo honen aurrean, justifikatuz aurreikusitako mugaz gaindiko lekualdaketak bat datozela EAeko 2020rako Hondakinak Prebenitzeko eta Kudeatzeko Planean zehazten diren hondakinen inguruko plangintzaren helburuekin.

D.2.– Instalazioaren funtzionamendurako baldintza orokorrak.

D.2.1.– Ustiaketarako baldintza teknikoak.

D.1 atalean adierazitako hondakinak jaso, ikuskatu eta biltegitratzeko baldintzez eta kontrolez gain, Recypilas SA enpresak tratamendu-lerroei dagokienez honako baldintza orokor eta berezi hauek betetzen direla bermatu beharko du:

1.– Ekipo elektriko eta elektronikoen hondakinak kudeatuko dira Gailu Elektriko eta Elektronikoen Hondakinei buruzko 110/2015 Errege Dekretuan, otsailaren 20koan, xedatutakoaren arabera.

2.– Eremuan bildutako hondakinak biltegitratzeko instalazioak eta hondakin arriskutsuak sailkatu, egokitu eta berriz ontziratzeke instalazioak estaliak izan beharko dute, prezipitazio atmosferikoak sartzea eragozteko; gainera, lurzoru estankoak izango dituzte, aurreikus daitezkeen karga guztiak jasateko eta biltegitratuko diren hondakin arriskutsuen ihes posibleei eusteko modukoak.

3.– Kaiolak eta edukiontziak edukiko dituzte, eta TEEHak bereiz gordetzeko aukera ematen duten beste sistema baliokide batzuk, 110/2015 Errege Dekretuaren VIII. eranskinaren 1. taulan aurreikusitako frakzioekin eta tratamendu taldeekin bat etorritik.

Ez da inola ere baimenduko TEEHak instalazioko edukiontzietan botatzea.

4.– Neurri egokiko apalategiak, paletak eta edukiontziak edukiko dituzte berrerabil daitezkeen prestatzeko gordetako TEEHak gainerakoetatik bereizi ahal izateko, eta era horretan ekipoak haustea saihesteko.

5.– Teilapeko edukiontzi, palet edo apalategiak edukiko dituzte. Bilketa egiteko ohiko ibilgailuek garraiatzeko modukoak izango dira horiek.

6.– Instalazioetarako sarbidea kontrolatzeko segurtasun-sistemak edukiko dituzte, bildutako TEEHak manipulatu edo lapur ditzaten saihesteko. Egoki iritziz gero, edukiontzien diseinu egokia edukiko dute han gordetako TEEHak kontrolik gabe eskuratzea eragoztearren.

7.– Tresna elektriko eta elektronikoen hondakinak deskutsatu egingo dira Gailu Elektriko eta Elektronikoen Hondakinei buruzko 110/2015 Errege Dekretuaren, otsailaren 20koaren, XIII. eranskinean eta D.1.1. ataleko taulan adierazitako prozedura espezifikoei jarraikiz.

Deskutsadurak, gutxienez ere, eranskin horretako G.8 atalean zehaztutako fluidoak, osagaiak, materialak, substantziak eta prestakinak gaika kentzea hartuko du barne, haien artean osagai bromatuak dituzten plastikoak jasota.

8.– Zatikatzeko eta sailkatzeko instalazioek isurtzeak biltzeko eta arazteko sistema izango dute.

9.– Tratamenduaren ondoren aparatuetatik bereizitako hondakin arriskutsuak biltegitzeko eremuak edo eremuek lurzoru estankoak izango dituzte. Beren egoera fisiko likido edo oretsua dela eta, edo beren inpregnazio-mailarengatik isurketak eragin edo lixibiatuak sor ditzaketen hondakin arriskutsuei dagokienez ontzi edo bilketa-sistema egokiak jarriko dira izan litezkeen isuriak kanpora isurtzea saihesteko. Bilketa-sistemek independenteak izan behar dute hondakin mota hauetarako: isuriren bat gertatu eta nahastuz gero, arriskugarritasuna handitzea edo kudeaketa zailtzea dakarten hondakinetarako. Hondakin arriskutsuak aldi baterako biltegitzeko instalazioak, hala badagokio, aplikatu beharreko aginduak bete beharko ditu, produktu kimikoak biltegitzekoari buruz indarrean den araudian ezarritakoari jarraituz.

10.– Indarraldiaren arabera, Recypilas SAk eta enpresak igorritako hondakin arriskutsuen kudeatzaile hartzaileen artean hitzartutako onarpen-kontratu edo -gutunen indarraldia aldizka egiaztatu beharko da Ingurumen Sailburuordetzaren aurrean.

11.– Berrerabili daitezkeen piezak leku egokian biltegitzeko gune bereziak izan beharko dira.

12.– Merkurioa duten lanparei dagokienez honako neurri gehigarri hauek hartuko dituzte:

Lanpara horiek haustea saihesten duten edukiontzi berezi batzuetan baino ez dituzte bilduko. Aireztapenik gabeko toki batean biltegitzen badituzte, edukiontziak beti estalita egongo dira, lanparak halabeharrez hausten badira merkurio-lurrunak irten daitezen eragoztearren.

Edukiontzien lanpara trinkoak eta lanpara zuzenak gaika eta bereiz biltzea bermatuko dute, bi tipologia ez nahasteko moduan egin ere. Edukiontzi bereko konpartimentu ezberdinetan bildu ahal izango dituzte.

Merkurioa duten lanparen frakzioa kontrolatu eta egokituko dute haiek haustekotan kutsadura eragoztearren. Laneko segurtasun- eta higiene-protokoloak ezarriko dituzte frakzio horrekin lan egiten duten langileak babesteko.

Neurri egokiak hartuko dituzte lanparak haustea eta merkurioa askatzea eragoztearren.

Jasotzeko orduan ez da inola ere baimenduko garraiatzen dituen ibilgailua iraulita edukia hustea.

13.– 110/2015 Errege Dekretuaren aplikazio-eremuaren barruan jaso eta kudeatutako TEEHak identifikatzeko orduan, EHZ-TEEH kode konbinatua erabiliko da. Horretan EHZ kodeari bi digitu gehitzen zaizkio hondakina datorren tresnaren kategoria eta haren tratamendu mota espezifikoa adierazteko. EHZ-TEEH kodea plataforma elektrikoan, artxibo kronologikoan eta kudeatzaileen

memorietan erabiliko da, baita 110/2015 Errege Dekretuaren ondoriozko TEEHen arloko informazio-betebeharretan ere.

110/2015 Errege Dekretuan aurreikusitako plataforma elektrikoa jardunean hasitakoan, VIII. eranskineko 1., 2. eta 4. bilketa-frakzioetako TEEHak egoki identifikatuko dira elektronikoki irakurtzeko etiketak erabiliz edo haien trazabilitatea bermatzen duten antzeko tresnen bidez. 3., 5. eta 6. bilketa-frakzioetako TEEHei dagokienez, irakurketa elektronikoko identifikazioa aurreko kasuan bezala aplikatuko da, edota edukiontzien etiketen edo bildu eta garraiatzean erabilitako taldekatze-sistemen bidez.

14.– Txatarra produktu gisa isurtzeko baldintzak.

Recypilas SA enpresak Kontseiluaren 333/2011 Erregelamenduaren (EB), 2011ko martxoaren 31koaren, 2. artikulua arabera halakorik isurtzen badu (beraren bidez txatar mota jakin batzuk Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2008/98/EE Zuzentarauaren arabera hondakin iza-teari noiz uzten dioten zehazteko irizpideak ezartzen dira), Recypilas SAK egiaztatu beharko du ezarritako baldintzak betetzen dituztela; horretarako dagozkion adostasun-adierazpenak egingo dituzte arau horren 5. artikuluan ezarritakoaren arabera. Adostasun-adierazpenak eskudun agintarien esku egongo dira hala eskatzen dutenean. Jasotako adierazpenaren erregistro bat ere emango dute.

15.– Urtero ingurumena zaintzeko programarekin batera 110/2015 Errege Dekretuan ezarritako balioztatzeko helburuen betetze-mailaren gaineko jarraipen-txostena ere igorriko dute. UNE-EN ISO/IEC 17020 arauaren arabera «TEEHak kudeatzeko instalazioak egiaztatzea» deritzon ikuskapen-eremurako egiaztatutako erakunde batek egingo du txosten hori.

D.2.2.– Airearen kalitatea babesteko baldintzak.

D.2.2.1.– Baldintza orokorrak.

Instalazioa ustiatzean, honako baldintza hauek bete beharko dira: atmosferara egingo diren isuriek ez gainditzea ebazpen honetan ezarritako balioak, eta Ingurumen Sailburuordetzak jarraibide teknikoetan ezarritako baldintza teknikoak betetzea.

Prozesuan zehar atmosferara botatzen den kutsagarri oro bildu eta ihesbide egokienean zehar kanpora bideratuko dira, behar denean, kutsagarrien ezaugarrien arabera diseinatutako gasak arazteko sistema batetik igaro ondoren.

Arau orokor horretatik salbuetsi daitezke isuri konfinatu gabeak, baldin eta horiek biltzea ez bada teknikoki eta/edo ekonomikoki bideragarria, edota egiaztatzen bada ingurunean kalte urria eragiten dutela.

Neurri egokiak hartuko dira ustekabeko isurtzerik ez egiteko, eta haien efluenteez giza osasunerako nahiz gizartearen segurtasunerako arriskutsuak izan ez daitezken. Gas-efluenteak tratatzeko instalazioak behar bezala ustiatu eta mantenduko dira, efluenteen tenperaturaren eta konposizioaren arabera sortzen diren aldaketei eraginkortasunez aurre egiteko. Era berean, instalazio horiek martxan ez dauden edo erabilgarri ez dauden aldien iraupena ahalik eta gehien murriztuko da.

Proiektuan atmosfera-kutsaduraren inguruan aipatutako neurriak beti beteko dira; bereziki, hauetzeko isuriak saihesteko direnak (bideak garbitzea adibidez).

Instalazioaren titularrek abenduaren 27ko 278/2011 Dekretuaren 5. artikuluan jasotako betebeharrak bete beharko dituzte (278/2011 Dekretua, Atmosfera kutsa dezaketen jarduerak burutzen dituzten instalazioak arautzen dituen).

Atmosferaren arloko eskumenak dituen sailak argitaratutako jarraibide tekniko guztiak bete beharko dituzte honako elementu hauek: sekzioa, neurketa-gunea, laginketa-gunea, neurketa-por-tua, irisgarritasuna eta fokuen segurtasuna eta zerbitzuak.

D.2.2.2.– Fokuak identifikatzea. Katalogazioa.

Instalazioak honako foku konfinatu hauek ditu, urtarrilaren 28ko 100/2011 Errege Dekretuaren (atmosfera kutsa dezaketen jardueren katalogoa eguneratzen duena eta hura ezartzeko oinarritzko xedapenak finkatzen dituena) katalogoan jasotako B 09 10 09 06 jarduerarekin (Txatarra edo metalezko gainerako hondakinak zatikatzeko edo birrintzeko makinak) lotuta:

Foku zk.	Foku zk.	Isurketa-fokuaren izena	Altuera (m)	Jarduerarako araubidea	UTM koordenatuak	
					X	Y
1	4800002937-01	1. MRT destilagailu-labea eta fluoreszenteak birrintzeko makina eta MRT HID prozesadorea	8,0	Foku sistematikoa	504.254	4.794.021
2	4800002937-02	2. Destilagailuaren gela MRT	8,0	Foku sistematikoa	504.254	4.794.021
3	4800002937-03	3. Pila alkalinoen errota	11,0	Foku sistematikoa	504.254	4.794.021
8D	48002383-08d	Kable-chopping-a	11	Foku ez-sistematikoa	504.258	4794010

Foku ez-sistematikoetakoren bat, batez beste, urtean hamabi alditan baino gehiagotan funtzionatzera pasatuko balitz, ordubate baino gehiagoko iraupen indibiduala izanik, edo, maiztasuna edozein dela ere, isurtzeen iraupen orokorra instalazioaren funtzionamendu-denboraren ehuneko bostetik gorakoa bada, isurtze-foku gisa araupetu beharko da.

Urte jakin batean foku sistematiko batek foku ez-sistematiko batek bezala funtzionatzen badu, ez da foku horren gaineko kontrolik egin beharko urte horretan. Ondoko urtean egin beharko da, baldin eta kontrola salbuesteko baldintzek jarraitzen ez badute. Ingurumena zaintzeko dagokion programan justifikatu beharko da inguruabar hori.

Organo honek foku berri bat baimendu ondoren, abiarazten denetik sei hilabete igaro baino lehen, ingurumen-kontrolerako erakunde batek egindako kontrol-txosten bat igorri beharko da. Nolanahi ere, epe hori luzatzeko eskatu ahal izango zaio Ingurumen Sailburuordetzari, betiere behar bezala justifikatutako arrazoiak direla medio.

D.2.2.3.– Isurketaren muga-balioak.

Instalazioa ustiatzean, atmosferara egiten diren isurtzeetan, ez dira gaitutako isurtzeen muga-balio hauek:

Fokuak	Fokuaren izena	Substantziak	Isurketaren muga-balioak
1	1. MRT destilagailu-labea eta fluoreszenteak birrintzeko makina eta MRT HID prozesadorea	Gutzizko partikulak (mg/Nm ³)	50
		Azido klorhidrikoa (HCl) (mg/Nm ³)	30
		Pb+Cu+Mn+Zn (mg/Nm ³)	5
		Merkurioa (Hg) (mg/Nm ³)	0,2
2	2. Destilagailuaren gela MRT	Gutzizko partikulak (mg/Nm ³)	50
		Azido klorhidrikoa (HCl) (mg/Nm ³)	30
		Pb+Cu+Mn+Zn (mg/Nm ³)	5
		Merkurioa (Hg) (mg/Nm ³)	0,2
3	3. Pila alkalinoen errota	Gutzizko partikulak (mg/Nm ³)	50
8D	8D. Kable-chopping-a	Gutzizko partikulak (mg/Nm ³)	50

Balio horiek baldintza hauek dituzte: 273 K-ko temperatura, 101,3 kPa-ko presioa eta gas lehorra.

Isurketa-balioak betetzen direla abenduaren 28ko 278/2011 Dekretuaren 9. artikuluan xedatutakoaren arabera ebaluatuko da. Mugako isurketa-balioren bat betetzen ez dela ikusten bada, beharrezko neurri zuzentzaileak hartu beharko dira luzamendurik gabe, eta berehala jakinaraziko zaizkio ingurumen-arloko eskumena duen sailari ez-betetzea, neurri zuzentzaileak eta haien epeak.

D.2.2.4.– Gasak bildu eta kanporatzeko sistemak.

Instalazioaren titularrek abenduaren 27ko 278/2011 Dekretuaren 5. artikuluan jasotako betebeharrak bete beharko dituzte (278/2011 Dekretua, Atmosfera kutsa dezaketen jarduerak burutzen dituzten instalazioak arautzen dituena).

Fokuetako hondar-gasak husteko tximiniak B.1.1.2 zenbakian ezarritako kotatik gora helduko dira. Sekzioek eta lagin-puntuen kokapenak Ingurumen, Lurralde Plangintza, Nekazaritza eta Arrantzako sailburuaren 2012ko uztailaren 11ko Aginduaren bidez argitaratutako jarraibide teknikoetan ezarritakoa bete beharko dute.

Zehazki, laginak hartzeko aurreikusita dauden zuloen kokapenari eta ezaugarriei dagokienez, Ingurumen Sailburuordetzaren jarraibide teknikoak bete beharko dira.

Isurtze barreiatuak murrizteko xedearekin, hautsezko materialak biltzeko tresna izango da, bereziki akaberako materialak garraiatzerakoan eta zamalanetako eragiketetan.

D.2.3.– Isurketak egiteko baldintzak.

Isurketa sortzen duen jarduera mota nagusia: Txatarra eta metalaren hondakinak birziklatzea.

Jarduera-taldea: 2.

Mota-taldea-EJSN: 1-2-37.10.

D.2.3.1.– Isurketen jatorria eta kokapena.

Isurketa-puntua	Hondakin-uren mota	Isurketaren jatorria	Ingurune hartzailea	UTM koordinatuak
1	Kutsatuta egon daitezkeen euri-urak	Lurrazaleko jariatze-ura	Indumetaleko sarea	X: 504.277 Y: 4.794.065
2	Ur beltzak	Bulegoak	BBUPko kolektorea	-

D.2.3.2.– Isurketaren muga-balioak.

Ondorengo zerrendan ageri dira isurketen kutsaduraren parametroen ezaugarri nagusiak, bakoitzarentzat ezarritako muga-balioekin:

2. isuria: Ur beltzak.

2018ko martxoaren 12a, astelehena

Parametro orokorrak			
Parametroa	Sinboloa	Unitatea	Isurketaren mugabaliok
Temperatura	T°	°C	45
pH	pH	pH unitateak	6 – 9,5
Solido esekiak guztira	SEG	mg/l	600
N-amoniakala	N-NH3	mgN/l	300
Olio eta/edo koipeak (animalia- edo landare-jatorrikoak)	O eta K	mg/l	300
Olio mineralak	O eta K	mg/l	50
Detergente anionikoak		mg/LAS/l	40
Zianuroak guztira	CN -	mg/l	2
Sulfuroak	S =	mg/l	2
Kloruroak	Cl -	mg/l	(*)
Sulfatoak	SO4=	mg/l	1.500
Fluoruroak	F -	mg/l	50
Fenolak		mg/l	50
Artsenikoa	As	mg/l	1,5
Antimonioa	Sb	mg/l	0,5
Barioa	Ba	mg/l	20
Kadmioa	Cd	mg/l	1,5
Kromoa guztira	Cr	mg/l	7,5
Kromoa guztira (eguneko batezbestekoa)	Cr	mg/l	0,75
Kromo hexabalentea	Cr+6	mg/l	0,5
Kobrea	Cu	mg/l	7,5
Eztainua	Sn	mg/l	10
Burdina	Fe	mg/l	30
Merkurioa	Hg	µg/l	50
Nikela	Ni	mg/l	5
Zilarra	Ag	mg/l	1
Beruna	Pb	mg/l	3
Selenioa	Se	mg/l	5
Zinka	Zn	mg/l	15
Toxikotasuna Vibrio fischeri-ren bioluminiszentzia inhibitzeagatik		Equitox/m3	50

(*) Kloruroen kontzentrazioa mugatuta geldituko da; isuria hartzen duen hondakin-uren araztegiaren isuriek ez dute 2.000 mg/l-ko kontzentrazioa gainditu behar saneamendu-sareko erabiltzaile guztientzat.

Konposatu organikoak		
Konposatu organikoa	Sinboloa	Muga
Konposatu organiko halogenatuak	AOX	Muga espezifiko bat ezarri ahal izango da industria-isurketak araztegiaren efluentearen kalitatean zer eragin duen edo tratamendu-prozesuan sortutako hondakinen (lohiak, errautsak, etab.) kudeaketa kontuan hartuta.
Alkil bentzeno sulfonato linealak	LAS	
Ftalatoak	DEHP	
Nonilfenolak eta nonilfenol etoxilatoak	NPE	
Hidrokarburo aromatiko poliziklikoak	PAH	
Bifenilo polikloratuak	PCB	
Poliklorodibenzodioxinak eta poliklorodibenzofuranoak	PCDD/PCDF	

Ezingo dira diluzio-teknikak erabili isurketako muga-balioak lortzeko.

D.2.4.– Instalazioetan sortutako hondakinak egoki kudeatzen direla bermatzeko baldintzak.

Instalazioetan sortutako hondakin guztiak Hondakinei eta Lurzoru Kutsatuei buruzko Legean (uztailaren 28ko 22/2011 Legea) eta aplikatzekoak diren araudi espezifikoetan ezarritakoaren arabera kudeatuko dira, eta, kasuan kasu, karakterizatu egin beharko dira beren izaera eta helmugarik egokiena zehazteko.

Espresuki debekatuta dago sortzen diren tipologia desberdineko hondakinak elkarrekin edo beste hondakin nahiz efluente batzuekin nahastea; hondakinak jatorritik bertatik bereiziko dira, eta haiek bildu eta biltegitratzeko bide egokiak jarriko dira, nahasketak saihesteko.

Hondakinen kudeaketari buruzko printzipio hierarkikoei jarraituz, hondakin oro balioztatu beharko da, balioztatzaile baimendu bati emanda. Hau izango da hondakinak ezabatzeko aukera bakarra: aldeztatik haiek balioztatzea teknikoki, ekonomikoki eta ingurumenaren ikuspegitik bideraezina dela justifikatzea. Birsortzea/berrerabiltzea lehenetsiko da balioztatzeko beste edozein modu material edo energetikoren aurretik.

Era berean, hondakinak tratatzeko Euskal Autonomia Erkidegoan instalazio baimenduak badaude, lehenetsunez instalazio horietara bidaliko dira, autosufizientzia- eta gertutasun-printzipioei jarraituz.

Baldin eta aurreikusten bada hondakindegia baimenduan ezabatzea dela hondakinen azken helmuga, orduan, hondakin horiek karakterizatuko dira, Kontseiluaren 2002ko abenduaren 19ko 2003/33/EE Erabakiak (hondakinak hondakindegietan hartzeko irizpideak eta prozedurak ezartzen dituenak) xedatutakoari jarraituz, eta otsailaren 24ko 49/2009 Dekretuak (Hondakinak hondakindegietan biltegitratuta eta betelanak eginda ezabatzea arautzen duena) ezarritako jarraibideen arabera.

Instalazioan sortutako hondakinen kantitatea, ebazpen honetan jasotakoa, orientagarria da soilik, kontuan hartuta jardueraren ekoizpen-gorabeherak eta ekoizpenaren eta sortutako hondakinen arteko erlazioa. Datu horiek jardueraren adierazleetan ageri dira. Abenduaren 16ko 1/2016 Legegintzako Errege Dekretuak onartutako Kutsaduraren prebentzio eta kontrol integratuari buruzko uztailaren 1eko 16/2002 Legearen testu bateginaren 10. artikuluan ezarritakoa ezertan galarazi gabe, instalazioko aldaketak kalifikatzeko, kasu honetan soilik eskatu beharko da baimena egokitzea: baldin eta sortutako hondakinen kantitatea handitzeak aurretik ezarri diren biltegitratze- eta ontziratze-baldintzak aldatu beharra badakar.

Hondakinak biltegitratzeko eremuak edo eremuek lurzoru estankoa izango dute. Egoera fisiko likidoan edo oretsuan daudelako edo oso bustita daudelako, hondakinok isurketak edo lixibiatuak sor baditzakete; bada, orduan, horiek biltzeko kubeta edo sistema egokiak izan beharko dira, gerta daitezkeen isurketak kanpora irten ez daitezkeen. Hautsezko hondakinen kasuan, hondakinak euri-urarekin bustitzea edo haizeak herrestan eramatea eragoziko da, eta, beharrezkoa izanez gero, estali egingo dira.

Sortutako hondakinak beste erkidego batzuetara lekualdatzeko, Estatuaren Lurraldearen Barruko Hondakinen Lekualdaketa arautzen duen 180/2015 Errege Dekretua eta Euskal Autonomia Erkidegoan gerora egiten den arau horren garapena bete beharko dira.

Hori hala izanik, hondakinak beste autonomia erkidego batera lekualdatzeko, identifikazio-agiri bat aurkeztu beharko da, jarraipen eta kontrola egiteko, Hondakinei eta Lurzoru Kutsatuei buruzko Legearen (uztailaren 28ko 22/2011) 25.2 artikuluan arabera.

Nahitaezko aurretiko jakinarazpen-kasuetan, uztailearen 28ko 22/2011 Legearen 25. artikuluan aurreikusitako eta matxoaren 13ko 180/2015 Errege Dekretuaren 9. artikuluan garatutako kautetako bat gertatzen denean, hala organo honek nola helmugako autonomia-erkidegoko organo eskudunak hondakinak garraiatzearen aurka egin ahalko dute; arrazoitutako erabakia garraio-jakinazpena aurkeztu eta gehienez ere hamar eguneko epean jakinarazi beharko diote operadoreari.

Baldin eta hondakinak Estatutik kanpora esportatzen badira, Europako Parlamentuarena eta Kontseiluaren 2006ko ekainaren 14ko 1013/2006 Erregelamenduan, hondakinen lekualdaketei buruzkoan, ezarria bete beharko da.

Hondakinak desagertu, galdu edo isurtzen baldin badira, jazoera hori berehala jakinarazi beharko zaie bai Ingurumen Sailburuordetzari bai Erandioko Udalari.

Baldin eta Ontziei eta Ontzien Hondakinei buruzko Legearen (apirilaren 24ko 11/1997 Legea) lehen xedapen gehigarriari atxiki zaion hornitzaile batengandik eskuratutako merkataritza- edo industria-ontzi baten azken jabea bada Recypilas SA, bera izango da ontzi-hondakin edo ontzi erabili horren ingurumen-kudeaketa zuzena egitearen arduraduna, eta, beraz, hondakin hori kudeatzeko baimena duen kudeatzaile bati entregatu beharko dio.

Indumetal Recycling SAren prozesuetan eta horri lotutako Recypilas SAren jardueran sortutako hondakinak batera kudeatu ahal izango dira.

D.2.4.1.– Hondakin arriskutsuak.

1. prozesua: Lanparen tratamendua (hodi fluoreszenteak eta lanpara trinkoak).

1. hondakina: «Iragazkiko hauts fluoreszentea».

Identifikazioa: A48549422/4800002937/1/1.

Helmugako eragiketaren kodea: R4.

Osagai arriskutsuak: C16.

Arrisku-ezaugarria(k): H6.

EHZ: 191211*.

Kopurua: 25 t/urte.

Hondakin hori daukaten lanparetatik bereiztean sortzen da.

Polietilenoazko barneko poltsa duen big-bag poltsan biltzen da, eta haren eduki metalikoa barreiatzea saihesten da.

2. hondakina: «Zikloi-beira».

Identifikazioa: A48549422/4800002937/1/2.

Helmugako eragiketaren kodea: D5.

Osagai arriskutsuak: C16.

Arrisku-ezaugarria(k): H6.

EHZ: 191211*.

Kopurua: 30 t/urte.

Hondakin hori daukaten lanparetatik bereiztean sortzen da.

Polietilenoazko barneko poltsa duen big-bag poltsan biltzen da, eta haren eduki metalikoa barreiatzea saihesten da.

2. prozesua: HID lanparen tratamendua.

1. hondakina: «TEEHen osagai arriskutsuak (HID kapsulak)».

Identifikazioa: A48549422/4800002937/2/1.

EHZ: 160615*.

Helmugako eragiketaren kodea: R13.

Osagai arriskutsuak: C22.

Arrisku-ezaugarria(k): H5.

Kopurua: 3 t/urte.

Hondakin hori daukaten lanparetatik bereiztean sortzen da.

Plastikozko edukiontzi batean biltzen da, eta haren eduki metalikoa barreiatzea saihesten da, ondoren destilagailuan autokudeketa egiteko.

3. prozesua: Pilak sailkatzea.

1. hondakina: «Berunezko bateriak».

Identifikazioa: A48549422/4800002937/3/1.

EHZ: 160601*.

Helmugako eragiketaren kodea: R4/13.

Osagai arriskutsuak: C18/23.

Arrisku-ezaugarria(k): H8.

Kopurua: 100 t/urte.

Pila-nahasketa sailkatzean sortzen da. Plastikozko edukiontzian biltzen da.

2. hondakina: «Ni/Cd-zko metagailuak (pila zapalarekin, gabe eta beste batzuk)».

Identifikazioa: A48549422/4800002937/3/2.

EHZ: 160602*.

Helmugako eragiketaren kodea: R13/R4.

Osagai arriskutsuak: C1124.

Arrisku-ezaugarria(k): H8.

Kopurua: 150 t/urte.

Pila-nahasketa sailkatzean sortzen da. Zurezko kaxetan eta plastikozko bidoietan biltzen da.

3. hondakina: «Hg-zko botoi-pilak».

Identifikazioa: A48549422/4800002937/3/3.

EHZ: 160603*.

Helmugako eragiketaren kodea: R13.

Osagai arriskutsuak: C7/16.

Arrisku-ezaugarria(k): H5.

Kopurua: 150 t/urte.

Pila-nahasketa sailkatzean sortzen da. Zurezko kaxetan eta plastikozko bidoietan biltzen da ondoren destilagailuan autokudeaketa egiteko.

4. hondakina: «Baztertutako ekipo elektriko eta elektronikoak»

Identifikazioa: A48549422/4800002937/3/4.

EHZ: 160213*.

Helmugako eragiketaren kodea: R13.

Osagai arriskutsuak: C22.

Arrisku-ezaugarria(k): H5.

Kopurua: 4 t/urte.

Zurezko kaxetan eta plastikozko bidoietan biltzen da.

4. prozesua: Botoi-pilak eta merkurioa duten beste hondakin batzuk destilatzea.

1. hondakina: «Iragazkiko hauts fluoreszente destilatuak».

Identifikazioa: A48549422/4800002937/4/1.

EHZ: 191211*.

Helmugako eragiketaren kodea: R4.

Osagai arriskutsuak: C16.

Arrisku-ezaugarria(k): H6.

Kopurua: 10 t/urte.

Polietilenoazko barneko poltsa duen big-bag poltsan biltzen da.

2. hondakina: «Destilatzeko prozesuko urak».

Identifikazioa: A48549422/4800002937/4/2.

EHZ: 060404*.

Helmugako eragiketaren kodea: R13.

Osagai arriskutsuak: C16.

Arrisku-ezaugarria(k): H6.

Kopurua: 4 t/urte.

Atxikitzeko ontzien gainean kokatutako 200 litroko bidoietan biltegitratzen da.

3. hondakina: «Merkurioa».

Identifikazioa: A48549422/4800002937/4/3.

EHZ: 060404*.

Helmugako eragiketaren kodea: R13.

Osagai arriskutsuak: C16.

Arrisku-ezaugarria(k): H6.

Kopurua: 0,1 t/urte.

Metalezko botila espezifikotan biltegitratzen da.

5. prozesua: Zerbitzu Orokorrak.

1. hondakina: «Ur kutsatuak».

Identifikazioa: A48549422/4800002937/5/1.

EHZ: 160601*.

Helmugako eragiketaren kodea: D15.

Osagai arriskutsuak: C5/11.

Arrisku-ezaugarria(k): H14.

Kopurua: 3 t/urte.

Edukiontzi handi batean soltean biltegitratzen da edo zuzenean xurgatzen da baimendutako kudeatzaileari igortzeko

2. hondakina: «Olio-iragazkiak».

Identifikazioa: A48549422/4800002937/5/2.

EHZ: 160107*.

Helmugako eragiketaren kodea: R13/4.

Osagai arriskutsuak: C51.

Arrisku-ezaugarria(k): H5.

Kopurua: 0,01 t/urte.

200 litroko metalezko bidoian biltegitratzen da, kudeatzaile baimenduari igortzeko ondoren.

3. hondakina: «Trapuak, kutsatutako paper xurgatzailea (Hg-rekin)».

Identifikazioa: A48549422/4800002937/5/3.

EHZ: 150202*.

Helmugako eragiketaren kodea: R13.

Osagai arriskutsuak: C7/16.

Arrisku-ezaugarria(k): H5.

Kopurua: 0,1 t/urte.

200 litroko metalezko bidoian biltegitratzen da, kudeatzaile baimenduari igortzeko ondoren.

4. hondakina: «Trapuak, kutsatutako paper xurgatzailea (Hg gabe)».

Identifikazioa: A48549422/4800002937/5/4.

EHZ: 150202*.

Helmugako eragiketaren kodea: R13.

Osagai arriskutsuak: C7/16.

Arrisku-ezaugarria(k): H5.

Kopurua: 0,1 t/urte.

200 litroko metalezko bidoian biltegitratzen da, kudeatzaile baimenduari igortzeko ondoren.

5. hondakina: «Sepiolita eta xurgatzaile kutsatuak».

Identifikazioa: A48549422/4800002937/5/5.

EHZ: 150202*.

Helmugako eragiketaren kodea: D15.

Osagai arriskutsuak: C41/51.

Arrisku-ezaugarria(k): H5.

Kopurua: 0,2 t/urte.

200 litroko metalezko bidoian biltegitratzen da, kudeatzaile baimenduari igortzeko ondoren.

6. hondakina: «Ontzi kutsatuak».

Identifikazioa: A48549422/4800002937/5/6.

EHZ: 150110*.

Helmugako eragiketaren kodea: R13.

Osagai arriskutsuak: C51/41.

Arrisku-ezaugarria(k): H5.

Kopurua: 0,2 t/urte.

Polietilenoazko poltsa duten big-bag poltsetan eta paleten gaineko metalezko karioletan biltegitratzen da, ondoren baimendutako kudeatzaileari igortzeko.

7. hondakina: «Erabilitako olioak».

Identifikazioa: A48549422/4800002937/5/7.

EHZ: 130205*.

Helmugako eragiketaren kodea: R9.

Osagai arriskutsuak: C51.

Arrisku-ezaugarria(k): H5/6.

Kopurua: 0,02 t/urte.

1.000 litroko solteko ontzi handi batean biltegitzen da, Indumetal Recycling SAri igorri aurretik, ondoren batera kudeatu eta kudeatzaile baimenduari igortzeko.

8. hondakina: «Baztertutako ekipo elektriko eta elektronikoak»

Identifikazioa: A48549422/4800002937/5/8.

EHZ: 160213*.

Helmugako eragiketaren kodea: R13.

Osagai arriskutsuak: C22.

Arrisku-ezaugarria(k): H5.

Kopurua: unean unekoa.

Paletetan biltegitzen da Indumetal Recycling SAri igorri aurretik, bertan tratatzeko.

a) Hondakin arriskutsuak biltzeko sistema bereziak erabiliko dira, duten tipologia dela-eta, isuriren bat gertatuz gero, nahasi, arriskutsuago bihurtu edo kudeaketa zaildu zezaketen kasuetan.

b) Hondakin arriskutsuak biltegitratzeko eremuak edo eremuek produktu kimikoak biltegitratzeko ezarritako zehaztapen teknikoak bete beharko dituzte, hala badagokio.

c) Hondakin arriskutsuak ontziratzeke, indarrean dagoen araudian ezarritako segurtasun-arauak bete beharko dira. Hondakin arriskutsuak dauzkaten ontziek eta ontzikiek etiketa argia, irakurgarria eta ezabagaitza eduki beharko dute eta itxita egon beharko dute kudeatzaileari eman arte, edukiak isurita edo lurrunduta gal ez daitezzen.

d) Gainerako hondakin arriskutsuak ezin izango dira 6 hilabete baino gehiago biltegitratu. Salbuespenetan, ingurumen-organoak aldatu ahalko du epe hori, behar bezala justifikatutako arrazoiak direla medio, baldin eta gizakion osasuna eta ingurumena babestuko dela bermatzen bada.

e) Hondakinak kudeatzaile baimenduaren instalazioetara eraman aurretik, nahitaezko baldintza izango da agiri baten bidez egiaztatzea kudeatzaile baimendu horrek hondakinak onartu dituela. Agiri horretan hondakinak onartzeko baldintzak ezarriko dira, eta egiaztatu egingo da tratatu beharreko hondakinaren ezaugarriak administrazio-baimenarekin bat datozela. Agiri hori Ingurumen Sailburuordetzara bidaliko da hondakina lehenengoz erretiratu aurretik, eta, behar izanez gero, hondakinen kudeatzaile berri batengana bidali aurretik. Beharrezkoa izanez gero, karakterizazio zehatza egingo da, proposatutako tratamenduaren egokitasuna egiaztatzeko. Hala badagokio, arrazoituen egin beharko da proposatutako kudeaketa-modua ebazpen honetako hondakin-kudeaketari buruzko printzipio hierarkikoei egokitzen zaiela.

f) Hondakin arriskutsuak eraman aurretik, eta, hala badagokio, araudian finkatutako aurretiazko jakinarazpena egin ondoren, dagokion kontrol- eta jarraipen-agiria bete beharko da. Recypilas SAK artxiboan erregistratu eta gutxienez hiru urtez gorde beharko ditu tratamendu-kontratuak eta identifikazio-agiriak edo agiri ofizial baliokideak.

g) Egiaztatu egin beharko da hondakin arriskutsuak kudeatzaile baimenduaren instalazioetara eramateko erabiliko den garraibideak horrelako gaiak garraiatzeko indarrean dagoen legerian ezarritako baldintzak betetzen dituela.

h) Recypilas SA enpresak Industrian erabilitako olioaren kudeaketa arautzen duen ekainaren 2ko 679/2006 Errege Dekretuari jarraituz kudeatu beharko du sortutako olio erabilia.

i) Ekipo elektriko eta elektronikoen hondakinak –besteak beste, lanpara fluoreszenteenak– Gailu Elektriko eta Elektronikoen Hondakinei buruzko 110/2015 Errege Dekretuan, otsailaren 20koan, xedatuaren arabera kudeatuko dira. Halaber, pilen eta metagailuen hondakinei dagokienez, otsailaren 1eko 106/2008 Errege Dekretuan (Pilei eta metagailuei eta haien hondakinen ingurumen-kudeaketari buruzkoa) xedatutakoa bete beharko dute. Kudeatzaile baimenduaren tratamendu-kontratu izateko, garraioaren aurretiko jakinarazpena egiteko eta identifikazio-agiria betetzeko betebeharretik salbu egongo dira kudeaketa-sistema integratuko kudeaketa-azpiegituretara eramaten diren hondakinak, bai eta toki-erakundeei ematen zaizkienak ere, gaika bildutako udal-hondakinekin eta haien parekoak direnekin batera kudeatu ditzaten, baldin eta dagokion toki-erakundeak eman izana egiaztatzen badu. Toki-erakundeei egindako entregak justifikatzeko agiriak hiru urtez gorde behar dira gutxienez.

j) Europako Parlamentuak eta Kontseiluak 2009ko irailaren 16an emandako 1005/2009/EE Erregelamenduak (ozono-geruza agortzen duten substantzien gainekoa) adierazitako substantzia erabiliak baldin baditu Recypilas SAK, berreskuratu egingo ditu, aldeek onetsitako bitarteko tekniko bidez edo ingurumenaren ikuspegitik onargarria den beste edozein ezabatze-bide tekniko erabiliz; bestela, birziklatzeko edo birsortzeko erabiliko ditu, aparatuak berrikusteko edo mantentzeko eragiketetan, edo desmuntatu edo ezabatu aurretik.

k) Recypilas SAK urteko adierazi behar izango dio Ingurumen Sailburuordetzari sortutako hondakin arriskutsuen jatorria zein den, zein kopuru sortu den, zein erabilera emango zaion eta adierazpenaren xede den ekitaldiaren amaieran zeintzuk dauden aldi baterako biltegiatuta. Datuekin batera, dagokion urteko ingurumena zaintzeko programa ere bidaliko du.

l) Aurreko e, f (kudeatzaileak EAEn daudenean) eta k ataletan adierazitako agiriak Ingurumen Sailburuordetzara bidaliko dira transakzio elektroniko bidez, IKS-eeM Sistemaren erakundeen-tzako bertsioa erabilia.

m) Recypilas SAK PCB eduki dezaketen gailuak dituenek, kudeaketa egokia izan dadin, nahitaez bete behar ditu poliklorobifeniloak, polikloroterfeniloak eta horiek dituzten gailuak ezabatzeko eta kudeatzeko neurriak ezartzen dituen abuztuaren 27ko 1378/1999 Errege Dekretuan zehaztutako baldintzak eta errege-dekretu hori aldatzen duen otsailaren 24ko 228/2006 Errege Dekretua. Recypilas SA enpresak poliklorobifeniloak dituen artean, nahitaez aurkeztu behar du urtero Errege Dekretu horrek araututako jakinarazpena.

n) Amiantoak duten hondakinak antzemanaz gero, Recypilas SA enpresak amiantoak ingurumenean sortzen duen kutsadura saihestu eta gutxitzeari buruzko 108/1991 Errege Dekretuan (3. artikulua) ezarritako eskakizunak bete beharko ditu. Horrez gain, amiantoak duten hondakinak kudeatzeko egingo diren manipulazioak 396/2006 Errege Dekretuan ezarritako aginduen arabera

burutuko dira; dekretu horren bidez ezarri ziren amiantoarekin lan egiterakoan segurtasun- eta osasun-arloan bete behar diren gutxieneko baldintzak.

o) Hondakin arriskutsu bakoitzari dagokion izendapena eta kodifikazioa ezartzen zaio, hondakin bakoitzaren egoera eta ezaugarrien arabera, baimena bideratzerakoan jasotako informazioa oinarri hartuta. Kode batzuek aldaketaren bat izan badezakete ere, beste batzuk, oinarrikoak direlako, aldatu gabe utzi behar dira ekoizpen-jardueran. Hondakina zer motatakoa den eta zer osagai arriskutsu dituen definitzen dute. Kudeaketa-bideetan hierarkizazioa egokia dela egiaztatzeke, eta bai Hondakinak Kudeatzeko Europako Estrategian bai Euskal Autonomia Erkidegoko Ingurumeneko Esparru Programan (2015-2020) ezarritakoa betetzen dela bermatzeko, organo honek onartu egin beharko du hondakin bakoitzaren onarpen-agirietan jasotako informazioa, dagokion kudeatzaile baimenduak horretarako eskaria egin ostean. Egiaztatzeak garrantzi berezia izango du, batez ere, berreskurapena edo balioztapena kudeatzeko eragiketa-kodearen arabera kudeatu diren hondakinen onarpen-agirietan lagatze- edo ezabatze-kodeak baliozkotzeko eskatzen bada.

D.2.4.2.– Hondakin ez-arriskutsuak.

Sustatzaileak adierazitako hondakin ez-arriskutsuak hauek dira:

Hondakinaren izena	EHZ kodea	Zer prozesuri lotuta dagoen	Gutxi gorabeherako ekoizpena
Beira (RECYGLASS)	191205	Lanparen tratamendua	800
TEEHen osagai ez-arriskutsuak (zorroak)	160216		200
Beira (HID)	191205	Lanparen tratamendua HID	50
HID metalikoak (zorroak, hagaxkak)	191203		30
Gatzezko pilak eta pila alkalinoak	160604	Pilen sailkapena	10.000
Nikel metalhidrurozko pilak eta metagailuak	160605		50
loi litiozko pilak eta metagailuak	160605		50
TEEH ez-arriskutsuak	160214		20
Zilar-kontzentratuak	191203	Merkurioa duten hondakinen destilagailua	20
Burdinazkoa ez den frakzioa (Black mass)	191203	Gatzezko pilen eta pila alkalinoen birrintzea	7.000
Birrintutako burdina	191202		2.000
Plastiko-kontzentratua	191204		100
Zura	200138	Zerbitzu orokorrak (bilgarria kentzea)	150

a) Hondakin horiek ezabatzeko direnean ezin dira urtebete baino gehiagoz biltegitatuta eduki. Hondakinen azken helburua balioztatzea denean, 2 urtez gorde ahal izango dira.

b) Oro har, ebakuatu aurretik hondakin guztiek izan beharko dute kudeatzaile baimendu batek emandako tratamendu-kontratua, onarpen horretarako baldintzak zehaztuta. Hala badagokio, arrazoitu egin beharko da proposatutako kudeaketa-modua ebazpen honetako hondakin-kudeaketari buruzko printzipio hierarkikoei egokitzen zaiela. Recypilas SAK erregistratu eta artxibategian gorde beharko ditu onarpen-agiriak edo haien agiri ofizial baliokideak, nahitaezkoak badira, hiru urtean gutxienez.

c) Halaber, hondakinak zabortegetan utzita eta betelanak eginda ezabatzea arautzen duen otsailaren 24ko 49/2009 Dekretuarekin bat etorriz, hondakin ez-arriskutsuak zabortege baimendu

batera eraman aurretik, jarraipenerako eta kontrolerako dagokion agiria bete beharko da. Agiri horiek bost urtez gorde beharko dira.

d) Erregistro bat eramango da, eta bertan adieraziko dira kopurua, mota, identifikazio-kodea, jatorria, metodoak eta tratatzeko lekuak, hondakin guztien sorrera- eta lagapen-datak, bilketaren maiztasuna eta garraio-bidea. Urtero, Ingurumen Sailburuordetzari bidaliko zaio kontrolerako erregistro horren kopia.

e) Aipatutako c) eta d) (kudeatzaileak EAEn daudenean) eta e) ataletan adierazitako agiriak Ingurumen Sailburuordetzara bidaliko dira transakzio elektronikoko bidez, IKS-eeM Sistemaren erakundeentzako bertsioa erabilita.

f) Hondakina zabortegian biltegitratuz gero, hondakin ez-arriskutsua eraman aurretik identifikazio-agiria bete beharra egongo da, otsailaren 24ko 49/2009 Dekretuan (hondakinak hondakindegian biltegitratuta eta betelanak eginda ezabatzea arautzekoa) ezarritakoari jarraikiz egingo da hondakinen karakterizazioa.

D.2.4.3.– Ontziak merkaturatzea.

Recypilas SAK, bere produktuak merkaturatzeko ontziak eta enbalajeak erabiltzen dituen enpresa den aldetik, ontzi horien gaineko informazioa eman beharko du urtero, martxoaren 31 baino lehen; horretarako, ontzien gaineko urteko adierazpena egin beharko du. Datuekin batera, dagokion urteko ingurumena zaintzeko programa ere bidaliko du.

Era berean, Recypilas SAK ontzi erabiliak eta ontzi-hondakinak kudeatzeko biltegitratze- eta itzultze-sistema bat ezarri beharko du (zuzenean edo kudeaketa-sistema integratu bati atxikita). Recypilas SA enpresak, bere produktuak merkaturatzeko industria- edota merkataritza-ontziak erabiltzen baditu, aipatu betebeharrak horretatik salbuesteko eskatu ahalko du, Ontzi eta ontzi hondakinei buruzko Legearen (apirilaren 24ko 11/1997) lehen xedapen gehigarriari atxikitzen bazaio; atxikimendu horren bidez, ontzi horiek kudeatzeko eta ingurumen-organoari informazioa pasatzeko betebeharra produktuaren kontsumitzaileari transferitzen zaio.

Baldin eta Recypilas SAK urte natural batean merkaturatzen dituen ontziratutako produktuek eta, ondorioz, industria- edo merkataritza-ontziek jarraian adierazten diren kantitateak baino handiagoak diren ontzi-hondakinak sor baditzakete:

- 250 tona, beira soilik bada.
- 50 tona, altzairua soilik bada.
- 30 tona, aluminioa soilik bada.
- 21 tona, plastikoa soilik bada.
- 16 tona, zura soilik bada.
- 14 tona, kartoia edo material konposatuak soilik badira.
- 350 tona, hainbat material badira, eta bakoitzak, bera bakarrik hartuta, ez baditu lehen aipatutako kantitateak gainditzen.

Prebentziozko enpresa-plan bat egin beharko du. Plan horrek hiru urteko indarraldia izango du, eta onartutako Enpresaren Prebentzio Planaren kontrol- eta jarraipen-txostena egin beharko zaio urtero, dagokion urtearen martxoaren 31 baino lehen. Dagokion urteko ingurumena zaintzeko programarekin batera bidaliko dira bi agiriok.

D.2.5.– Lurzorua babesteko baldintzak.

Ebazpen honek aztergai duen jarduera lurzorua ez kutsatzeko eta kutsatutakoa garbitzeko otsailaren 4ko 4/2015 Legearen aplikazio-eremuan «Txatarraren eta metal-hondakinen birziklatzea» 37.1 epigrafean sartuta dago, eta ingurumen-organoaren aurrean lurzoruaren egoerari buruzko aurretiazko txosten bat aurkeztu da.

Halaber, urtarrilaren 14ko 9/2005 Errege Dekretuan, ekainaren 25eko 4/2015 Legean eta abenduaren 16ko 1/2016 Legegintzako Errege Dekretuan xedatuta dauden eta lurzoruaren babesarekin lotura duten betebeharrak betetzeko, sustatzaileak 2016ko azaroaren 17an ingurumen-organoak bidalitako «Lurzoru kutsatuen eta lurpeko uren gaineko arauzko eskakizunak aplikatzea ingurumen-baimen integratua behar duten instalazioetan» zirkularrean aipatzen diren instalazioei eskatzen zaien dokumentazioa entregatu beharko du. Zirkular horretan honako hau jasotzen da: lurzoruaren egoeraren aldizkako txostenaren edukia eta entregatzeko baldintzak, lurpeko uren eta lurzoruen txostena, kontrol-dokumentua eta jarraipen-dokumentua. Esteka honetan eskura daiteke:

<http://www.ingurumena.ejgv.euskadi.eus/r49-pcc/eu/>

Betiere, sustatzaileak lurzoruen dokumentu bakar bat bidaliko du, ikerketa-lanak egiten eta lurzoruaren kalitatea lehengoratzeko lan egiten duen erakunde akreditatu batek egina. Dokumentu horretan jasoko dira: lurzoruaren egoerari buruzko aldizkako txostena, oinarritzko txostena, eta kontroleko eta lurzoruen eta lurrazpiko uren jarraipeneko dokumentuak. Aurrerantzean, entregatutako dokumentazioa aldatu edo dokumentazio berria entregatu behar bada, lurzoruen dokumentu bakar berri bat bidaliko da.

Instalazioetan egindako aldaketek eragindako lur-mugimenduei dagokienez, sustatzaileak baldintza hauek bete beharko ditu:

1.– Instalazioa baimenduta dagoen lurzatiaren barruan lurrak mugitzea dakarren aldaketa bat aurreikusiz gero:

a) Ekainaren 25eko 4/2015 Legearen 25. artikuluan 1c atalarekin bat etorriz, jardueraren sustatzaileak karakterizatu egin beharko ditu hondeatu behar dituen materialak (lurra, obra-hondakinak, eta abar), jardun kutsatzaileen ondorioz erasan zaien ala ez egiaztatzearen, eta, karakterizazio horren emaitzen arabera, horientzako kudeaketa-modu egokiena zehaztearen.

b) Hondeaketa horrek hondeatutako materialen 500 m³ gainditzen dituenean, sustatzaileak gainkako hondeaketa-plan baten aurkeztu beharko du. Planak 13. artikuluan adierazitako edukia jaso beharko du, eta ingurumen-organoak onartu behar du plana, betetzen hasi aurretik.

c) Induskatu beharrekoa 500 m³ baino gutxiago bada, aldaketa-komunikazioak informazio hau eman beharko du: non dagoen kokatuta, zenbat induskatu behar den, aurreikusitako hasiera-eguna, kontratista, jarraipenaren eta kudeaketaren ardura izango duen erakundea.

d) Aurreko kasu horietan guztietan, hondeatzen amaitutakoan, hondeatutako materialak zuzen berrerabili edo kudeatu direla ziurtatzen duen txosten bat aurkeztu beharko da ingurumen-organoan, behar bezala karakterizatu aurretik.

e) Oro har, irizpide hauek beteko dira:

– Soberakinak hondakindegian biltegitratuz hustu nahi izanez gero, otsailaren 24ko 49/2009 Dekretuan (hondakinak hondakindegietan biltegitratuta eta betelanak eginda ezabatzea arautzen duena) ezarritakoari jarraikiz egingo da hondakinen karakterizazioa. Oro har, lagin baten azterketa egin beharko da. Laginak 10 azpilagin izango ditu gutxienez, hondakindegian kudeatu beharreko soberakinen 500 m³-ko, baina hori aldatu ahal izango da espero izatekoa den kutsadura heterogeneotasunaren eta homogeneotasunaren arabera. Afekzioa homogeneoa izango dela aurreikusten denean, 500 m³-tik gorako bolumena duten unitateez osatutako lagina hartu ahal izango da; aldiz, afekzio heterogeneoa aurreikusten bada, 500 m³-tik beherako bolumenekoez.

– Soberako materialak instalazio berean berrerabili ahal izateko, balio hau izan beharko dute material horiek: ekainaren 25eko 4/2015 Legean (Lurzorua kutsatzea saihestu eta kutsatutakoa garbitzekoa) ezarritako VIE-B (industria-erabilera) balioaren azpitikoa. Horrez gain, lur horien hidrokarburo-edukia ezin izango da arriskutsua izan. Horretarako, erakunde egiaztatu batek egin beharko ditu laginketa eta azterketa, honen arabera: 199/2006 Dekretua, urriaren 10ekoa, Lurzoruaren kalitatea ikertu eta berreskuratzeko erakundeak egiaztatzeko sistema ezartzen duena, eta erakunde horiek lurzoruaren kalitatearen gainean egindako ikerketen edukia eta norainokoa zehazten dituen.

– Ekainaren 25eko 4/2015 Legean xedatutako VIE-A ebaluazioko balio adierazleak eta TPH direlakoetarako 50 mg/kg baino balio txikiagoak lortzen dituzten lurak lur garbitzat hartuko dira, eta, beraz, onartu egingo dira baimendutako betelan batean.

– Substratu harritsu osasuntsua murrizketarik gabe kudeatu ahal izango da. Lurzoru naturalaren pareko den substratu harritsu meteorizatuaren kasuan, aurreko puntuetan ezarritako irizpidea beteko da.

2.– Aurreikusten bada lur-mugimendua dakarren aldaketa egitea instalazioa baimenduta dagoen lurzatitik kanpo (lurzoru berria okupatuz) eta okupatu nahi den lurzoru berriak lehenago izan badu ekainaren 25eko 4/2015 Legearen I. eranskinean aipatutako jardueraren bat, sustatzaileak lurzoru gaiei buruzko adierazpen bat lortu beharko du, egin nahi diren aldaketak egiten hasi aurretik.

Era berean, ekainaren 25eko 4/2015 Legearen 22. artikulua 2. zenbakiaren arabera, lurraren kutsadura-aztarnak aurkitzen badira, horren berri eman beharko zaie dagokion udalari eta Ingarumen Sailburuordetzari, sailburuordetza horrek ezar ditzan hartu beharreko neurriak, aipatutako 4/2015 Legearen 23. artikulua 1.e zenbakiari jarraikiz betiere.

D.2.6.– Zaratari buruzko baldintzak.

a) Ondorengo indize akustikoak ez gainditzeko beharrezko neurri guztiak ezarriko dira:

a.1.– Jarduera maila hauei egokitu behar zaie: etxebizitzan barrualdean entzungo den LAeq,60 segundo zarata-indizeak ezin izango du inoiz ere 40 dB(A) gainditu, 07:00ak eta 23:00ak bitartean, leiho eta atek itxita, ezta LAmaz indizeak 45 dB(A) ere.

a.2.– Jarduera maila hauei egokitu behar zaie: etxebizitzan barrualdean entzungo den LAeq,60 segundo zarata-indizeak ezin izango du inoiz ere 30 dB(A) gainditu, 23:00ak eta 7:00ak bitartean, leiho eta atek itxita, ezta LAmaz indizeak 35 dB(A) ere.

a.3.– Jarduerak ez du 1. taulan adierazitakoa baino zarata handiagoa egingo, 4 m-ko garaieran neurtuta (egoera berezietan izan ezik; halakoetan, apantailamenduak saihesteko beharrezko garaiera hartuko da), industria-esparruaren kanpoaldeko itxituraren perimetro osoan.

Zarata-indizea	dB(A)
Ld	75
Le	75
Ln	65

1. taula: industria-esparruaren kanpoaldeko itxituren eskatutako zarata-mailak.

Abian den instalazioak, 1. taulan finkatutako mugak betetzeaz gain, ez du eguneko inolako baliotan (LAeq,d, LAeq,e eta LAeq,n) 1. taulan adierazitako balioak baino 3 dB-tik gorako gehikuntzarik gaitutuko.

Gainera, jardun-modu bat baldin badago, gainerako jardueretatik nabarmen berezia dagoena, jardun-modu horri lotutako zarata-maila bat zehaztu beharko da (LAeq,Ti). Ti jardun-modu horren iraupen-denbora izango da. Maila horrek ez ditu 1. taulan finkatutako balioak 5 dB-tan gaitutuko.

b) Zamaletan eta materiala kamioietan garraiatzean egiten den zaratak ez du nabarmen handituko sentsibilitate akustiko handiko guneetako zarata-maila.

E) Ingurumena Zaintzeko Programa.

Ingurumena zaintzeko programa sustatzaileak aurkeztutako agirietan aurreikusitakoaren eta atal hauetan ezarritakoaren arabera gauzatu beharko da:

E.1.– Atmosferarako isurtzeak kontrolatzea.

Recypilas SA enpresak isurtzeen kontrola egin beharko du, informazio honi jarraituz:

Fokuak	Fokuaren kodea	Kutsatzailea	Metodoak	Maiztasuna
1	4800002937-01	Gutzizko partikulak (mg/Nm ³)	UNE-EN 13284-1 IT-02: Isurketen kontrolak	urtean behin
		Azido klorhidrikoa (HCl) (mg/Nm ³)	UNE-EN 1911	
		Pb+Cu+Mn+Zn (mg/Nm ³)	UNE-EN 14385 Zn EPA method 29rekin	
		Merkurioa (Hg) (mg/Nm ³)		
2	4800002937-02	Gutzizko partikulak (mg/Nm ³)	UNE-EN 13284-1 IT-02: Isurketen kontrolak	urtean behin
		Azido klorhidrikoa (HCl) (mg/Nm ³)	UNE-EN 1911	
		Pb+Cu+Mn+Zn (mg/Nm ³)	UNE-EN 14385 Zn EPA method 29rekin	
		Merkurioa (Hg) (mg/Nm ³)	UNE-EN 13211	
3	4800002937-03	Gutzizko partikulak (mg/Nm ³)	UNE-EN 13284-1 IT-02: Isurketen kontrolak	5 urtean behin

Puntu honetako a) letran aipatutako neurketa guztiak administrazioaren II. mailako erakunde laguntzailearen batek egin beharko ditu, urriaren 16ko 212/2012 Dekretuan jasotzen den bezala; eta aldizkako neurketa horiei buruzko txostenek, berriz, Ingurumeneko sailburuaren 2012ko uztailaren 11ko Aginduan eskatzen diren baldintza guztiak bete beharko dituzte, batik bat honako hauei

dagozkienak: neurketaren helburua eta plana, neurketen adierazgarritasuna, neurketa kopurua eta neurketa bakoitzaren banako iraupena eta erreferentzia-metodoak hautatzeko irizpidea.

E.1.1.– Lortutako emaitzen erregistroa.

Euskarri informatikoan erregistro bat egingo da eguneratutako dokumentazioarekin, honako xedapen hauetan ezarritakoari jarraikiz, betiere: 100/2011 Errege Dekretuaren 8. artikulua (100/2011 Errege Dekretua, urtarrilaren 28koa, Atmosfera kutsa dezaketzen jardueren katalogoa eguneratzen eta hura ezartzeko oinarrizko xedapenak finkatzen dituen) eta 278/2011 Dekretuaren III. eranskina (278/2011 Dekretua, abenduaren 27koa, Atmosfera kutsa dezaketzen jarduerak burutzen dituzten instalazioak arautzen dituen).

Erregistro hori eguneratuta eta ingurumen-ikuskatzaileen eskura egongo da.

E.2.– Isuritako uraren kalitatea kontrolatzea.

a) Sustatzaileak aurkeztu dituen agirien arabera, honako analisi hauek egingo dira:

Isurketa-puntua	Kontrolatu beharreko fluxua	Neurtu beharreko parametroak	Kontrolen maiztasuna	Kontrol mota
2	Ur beltzak	BBUPk ezarria	BBUPk ezarria	Kanpoko

b) Kanpoko kontrol bakoitza, bai laginak hartzea, bai ondorengo analisisia, «erakunde laguntzaile» batek edo saneamendu-sarearen kudeaketa-arduradun den erakundeak (hala badagokio) egin eta egiaztatuko du, eta goian aipatutako parametroak hartuko dira kontuan. Sustatzaileak isurketa-puntu bakoitzeko lagin hartu berri baten analisisia aurkeztu beharko du gutxienez; lagina 24 orduko ur-emariarekiko proportzionala izango da, edo bestela, lagin puntual esanguratsua.

c) Laginketak kutsatzaile gehien sortzen den aldietan egingo dira beti.

d) Isurketak baimenean jarritako baldintza guztiak betetzen dituela ulertuko da, baldin eta D.2.3.3 atalean ageri diren parametro guztiek ezarritako mugak betetzen badituzte.

e) Titularrak urtero aurkeztu beharko du lehen aipatutako maiatzaren 23ko 606/2003 Errege Dekretuaren Hirugarren Xedapen Gehigarriak barne hartutako substantzia arriskutsuak dituzten isurketak daudela aitortzen duen agiria. Adierazpen horretan, produkzio-prozesuan manipulatu diren gai guztiak adierazi behar dira, nahiz eta isurian ez hauteman.

E.3.– Jardueraren adierazleen kontrola.

Sustatzaileak jardueraren gaineko ondorengo parametro-adierazleen segimendua egingo du urtero, ingurumenean duten eragina aztertzeko, eta urtean urteko ingurumen-zaintzako programarekin batera aurkeztuko du.

2018ko martxoaren 12a, astelehena

Ingurumen-gaia	Enpresari eskatutako abiapuntuko datuak	Unitatea	Interpretazioa egiteko adierazleak	Unitatea
Ekoizpena	Tratatutako lanparen guztizko kopurua	t	Tratatutako lanparen guztizko kopurua	t
	Sailkatutako pilen guztizko kopurua	t	Sailkatutako pilen guztizko kopurua	t
	Tratatutako pilen guztizko kopurua	t	Tratatutako pilen guztizko kopurua	t
	Tratatutako hondakinen guztizko kopurua	t	Tratatutako hondakinen guztizko kopurua	t
	Lanparen tratamendu-prozesuan lortzen den birziklatze- eta balioztatze-ehunekoa	%	Lanparen tratamendu-prozesuan lortzen den birziklatze- eta balioztatze-ehunekoa	%
	Gatzezko pilen eta pila alkalinoen tratamendu-prozesuan lortzen den birziklatze- eta balioztatze-ehunekoa	%	Gatzezko pilen eta pila alkalinoen tratamendu-prozesuan lortzen den birziklatze- eta balioztatze-ehunekoa	%
Energia-kontsumoa	Elektrizitate-kontsumoa	kWh	Elektrizitate-kontsumoa	KWh
Atmosferarako isurketak foku konfinatuetan	Partikula solidoen isurketak 1. eta 3. fokuetarako	mg/Nm3	Partikula solidoen isurketak (gehienekoa, gutxienezkoa, batez bestekoa, lagin kopurua)/ foku kontrolatu bakoitzeko	mg/Nm3
	Partikula solidoen isurketak 1. eta 3. fokuetarako	kg	Partikula solidoen guztizko isurtzeak	kg
		kg	Partikula solidoen guztizko isurtzeak/ Tratatutako guztizko hondakinak	kg/t
	Azido klorhidrikoaren isurketak (HCl) 1. fokurako	mg/Nm3	HClren isurketak 1. fokurako	mg/Nm3
	HClren isurketak guztira	kg	HClren isurketak guztira	kg
		Kg	HClren guztizko isurketak / Birziklatutako edo tratatutako guztizko hondakinak	kg/t
	Hg-ren isurketak 1. fokurako	mg/Nm3	Hg-ren isurketak 1. fokurako	mg/Nm3
	Hg-ren guztizko isurketak	kg	Hg-ren guztizko isurketak	kg
		kg	Hg-ren guztizko isurketak/ Birziklatutako edo tratatutako guztizko hondakinak	kg/t
	Pb+Cu+Mn+Zn-ren isurketak 1. fokurako	mg/Nm3	Pb+Cu+Mn+Zn-ren isurketak 1. fokurako	mg/Nm3
Pb+Cu+Mn+Zn-ren guztizko isurketak 1. fokurako	kg	Pb+Cu+Mn+Zn-ren guztizko isurketak 1. fokurako	kg	
	kg	Pb+Cu+Mn+Zn-ren guztizko isurketak 1. fokurako / Birziklatutako guztizko hondakinak	kg/t	
Isurtze-foku desberdinen neurketa sistematikoen emaitzen grafikoak	-	Isurtze-foku desberdinen neurketa sistematikoen emaitzen grafikoak	-	
Hondakin arriskutsuen sorrera (izanez gero, egindako tratamenduaren emaitza)	Enpresak sortutako hondakin arriskutsuen guztizko kantitatea	t	Sortutako hondakin arriskutsuen guztizko kantitatea	t
		t	Produkzio-unitate bakoitzeko sortutako hondakin arriskutsuen guztizko kantitatea	t/t
	Enpresak sortutako hondakin arriskutsu balioztatuak	t	Balioztatzea bideratutako hondakin arriskutsuen guztizko kantitatea	t
		t	Produkzio-unitate bakoitzeko balioztatzea bideratutako hondakin arriskutsuen guztizko kopurua	t/t
Hondakin ez-arriskutsuen sorrera (izanez gero, egindako tratamenduaren emaitza)	Enpresak sortutako hondakin ez-arriskutsuen guztizko kantitatea	t	Sortutako hondakin ez-arriskutsuen guztizko kantitatea	t
		t	Produkzio-unitate bakoitzeko sortutako hondakin ez-arriskutsuen guztizko kantitatea	t/t
	Enpresak sortutako hondakin ez-arriskutsu balioztatuak	t	Balioztatzea bideratutako hondakin ez-arriskutsuen guztizko kopurua	t

		t	Produkzio-unitate bakoitzeko balioztatzera bideratutako hondakin ez-arriskutsuen guztizko kopurua	t/t
Lurzoruaren kutsadura	Ustekabeko isurketekin lotutako gorabehera kopurua (zehaztu ingurune hartzailea: airea, ura, lurzorua)	Kop./urte	Ustekabeko isurketekin lotutako gertakari kopurua	Kop./urte
IKS	Ezarri eta egiaztatutako kudeaketa-sistemak (zehaztu)	BAI/EZ Zein/urtea	Ekoscan/ URTEA eta/edo ISO14001/ URTEA eta/edo EMAS/ URTEA	BAI/EZ Zein/urtea

E.4.– Zarataren kontrola.

a) Hiru urtean behin, 60 segundotan Ld, Le, Ln, LAeq,Ti eta LAeq indize akustikoen ebaluazioak egin beharko dira. Kontroleko lehen urtean izandako emaitzen arabera erabakiko da aurrerantzean neurketak egiteko maiztasuna.

b) Aurreko atalean adierazitako ebaluazio guztiak ENAC erakundeak espazio- eta denbora-lagin-ketarako egiaztatutako akustikaren esparruko entsegu-laborategiek egin beharko dituzte. Nolanahi ere, ingurumen-organoak ebaluazio horiek egiten dituzten erakundeek gaitasun tekniko egokia dutela zainduko du.

c) Ebaluazio-metodoak eta -prozedurak eta ebaluazio horiei buruzko txostenak Ingurumen Sailburuordetza honek emandako jarraibide teknikoetan ezarritakora egokituko dira.

E.5.– Emaitzak kontrolatu eta bidaltzea.

Ingurumena zaintzeko programa osatzen duten txostenen eta analisisien emaitzak behar bezala erregistratu behar dira, eta Ingurumen Sailburuordetzara bidaliko dira, Ingurumen, Lurralde Plan-gintza eta Etxebizitza Sailaren webguneko emate-prozedura telematikoari jarraikiz:

https://www.euskadi.eus/y22-izapide/eu/contenidos/serv_proc_comunicacion/p_comu_201732123333101/procedures/proc_201732144928210/eu_def/electronic_partial.shtml

Hala, aipatutako programan zehaztutako aldiaren egindako kontrol guztiak, ibilgura edo itsasora isuritako urei dagozkienak izan ezik, ingurumena zaintzeko programarekin batera aurkeztuko dira bakarrik, eta erreferentziako urtea amaitu ondoren. Ezarritako baldintzak betetzen ez direnean bakarrik jakinarazi beharko da, eta jakinarazpena ingurumen-baimen integratuan ezarritakoaren arabera egingo da. Era berean, kontrolak urtean behin baino maiztasun handiagoarekin egiten badira, kontrola egiten den urteari dagokion programaren barruan baino ez dira bidaliko.

Emaitza horiek urtero bidaliko dira, betiere martxoaren 31 baino lehen, eta txosten bat aurkeztu beharko da zaintza-programaren emaitzekin batera. Txosten horretan, babes- eta zuzenketa-neurrien funtzionamendua, prozesuak eta ingurunearen kalitatea kontrolatzeko sistemak eta emaitzen analisia jasoko dira, epe horretan izandako gertakari nagusiak bereziki aipatuta, haien kausa eta konponbideak; halaber, laginak nola hartu diren zehaztuko da, aurrez aldetik egin ez bada.

E.6.– Ingurumena zaintzeko programari buruzko agiri bategina.

Sustatzaileak ingurumena zaintzeko programaren agiri bategina eduki beharko du, eta bertan bildu beharko ditu aurkeztutako dokumentazioan proposatutako betebeharrak eta ebazpen honetan jasotakoak. Programa horrek honako hauek zehaztu beharko ditu: kontrolatu beharreko

parametroak, parametro bakoitzerako erreferentzia-mailak, analisi edo neurketen maiztasuna, laginketak eta analisiak egiteko teknikak, eta laginak hartzeko puntuen kokapen zehatza. Halaber, dagokion aurrekontua adierazi beharko du.

Era berean, ingurumena zaintzeko programak jardueraren adierazleak zehaztu eta adierazle horiek aztertzeko sistematika barruan izan beharko du, horien arabera enpresan bertan ingurumen-hobekuntza ziurtatzearen ezarritako neurri eta mekanismoen eraginkortasuna egiaztatu ahal izateko (ingurumen-adierazleak).

F) Ezohiko egoeretan kutsadurari aurrea hartzeko neurriak eta jardunerako baldintzak.

F.1.– Instalazioa gelditzeko eta abiarazteko eragiketak eta programatutako mantentze-lanetako eragiketak.

Urteko mantentze-lan programatuei eta martxan jartze eta geldiarazteko epeei dagokienez, enpresak sor litezkeen isurtze eta hondakinen kalkulua egin beharko du eta kudeaketa eta tratamendu proposamena egin beharko du, kasuan kasu.

F.2.– Jarduera bertan behera uztea.

Jarduerari lege hauek aplikatu behar zaizkio: 4/2015 Legea, ekainaren 25ekoa, lurzorua kutsatzea saihestu eta kutsatutakoa garbitzekoa, eta 9/2005 Errege Dekretua, urtarrilaren 14koa, kutsadura sor dezaketen jardueren zerrenda eta lurzoru kutsatuen adierazpenerako irizpide eta estandarrak ezartzekoa. Horrenbestez, Recypilas SAK jarduera uzte horren berri eman beharko dio ingurumen-organoari, bi hilabeteko epea agortu baino lehen; jakinarazpen horrekin batera, jarduera-proposamen bat ere aurkeztu beharko da, erakunde horrek ezar dezan noraino iristen diren bere betebeharrak eta lurzoruaren kalitatea deklaratzeko prozedura hasteko epea noiz hasiko den beranduenez, ekainaren 25eko 4/2015 Legeak 31.3 artikuluan xedatutakoari jarraikiz.

Jarduera bertan behera utzi baino lehen, Recypilas SAK instalazioetan dauden hondakin guztiak kudeatu beharko ditu, ebazpen honen D.2.4 azpiatalean ezarritakoarekin bat etorriz.

F.3.– Ezohiko jardunean aplikatzeko neurriak eta jarduketak.

Aurkeztutako agirietan proposatzen diren ezohiko egoeretan aplikatu beharreko prebentzio-neurriak eta funtzionamendu-baldintzak ezertan eragotzi gabe, letra hauetan aipatzen diren baldintzak bete beharko dira:

a) Prebentzioko mantentze-lanen eskuliburua eduki beharko da instalazioen egoera bermatzeko, batez ere ustekabeko isuri edo ihesak daudenean kutsadura ekiditeko eskuragarri dauden segurtasun-neurriei dagokienez. Jarioak daudenean lurzorua babesteko hartu beharreko neurriak zehaztuko dira, eta zehatz adieraziko da honako hauei dagokien guztia: eraikuntzako materialak (iragazgaitzak), biltegitratzeko neurri bereziak (substantzia arriskutsuak), egon daitezkeen jarioak antzemateko neurriak edo gehiegi bete direneko alarma-sistemak, lantegiko kolektore-sarea zaindu eta garbitzekoak (sistematikoki garbitu beharra, maiztasuna, garbiketa mota) eta lurzoru gaineko isuriak biltzeko sistemak.

b) Aurreko paragrafoan adierazitako eskuliburuak ikuskaritza eta kontrolerako programa jaso beharko du, hauek bilduko dituena: estankotasun-probak, mailen eta adierazleen egoera, balbulak, presioa arintzeko sistema, hormen egoera eta lodieren neurketa, andelen barnealdearen begi-bidezko ikuskaritzak (hormena eta estaldurena) eta kubetetako detekzio-sistemen aldizkako kontrol sistematikoa, lurzorua kutsa dezakeen edozein egoerari aurrea hartzeko. Goian aipatutako prebentziozko mantentze-lanen eskuliburuan, atmosferaren kutsadurari aurrea hartzeko eta

zuzentzeko (arazketa, minimizazioa, eta abar) sistemen egoera ona bermatuko duten neurriak gehitu behar dira.

c) Era berean, ustiapenari buruzko eskuliburu bat eduki behar da, eta bertan, aldizka egindako mantentze-lanen berri eman behar da, baita antzemandako gorabeherena ere.

d) Besteak beste, olioak, erregaiak eta gehigarriak, eta orokorrean, fabrian sortutako hondakinak maneiatzeak lurzorua eta ura kutsa dezake. Beraz, isuriak, jarioak edo ihesak gertatzeko arriskua izan dezaketen lurzatien azalera guztiak iragazgaitzuko dira.

e) Prozesurako behar diren lehengaiak, erregaiak eta produktuak, ingurunean ez sakabana-tzeko moduan biltegitratuko dira.

f) Segurtasun-tarteei eta babes-neurriei dagokienez, egiaztatu egin beharko da biltegitratzeko instalazio horiek bete egiten dituztela produktu kimikoak biltegitratzeari buruz indarrean dagoen araudian ezarritako betebeharrak. Betebehar hori betetzen dela egiaztatzeko, erakunde eskudunek emandako egiaztagiria aurkeztuko zaizkio Ingurumen Sailburuordetzari.

g) Larrialdirik gertatuz gero, berehala eta eraginkortasunez esku hartzeko beharrezkoak diren material guztiak edukiko dira, kantitate nahikoan: berriro ontziratzekeo erreserbako edukiontzia, beharrezkoa izanez gero; gerta daitezkeen isuriei eusteko produktu xurgatzaile selektiboak, segurtasuneko edukiontzia, hesiak eta kaltetutako ingurunean isolatzeko seinaleztapen-elementuak eta babes pertsonalerako ekipamendu bereziak.

h) Ingurumen Sailburuordetzara bidaliko da kubetak husteko eragiketak kontrolatzeko protokolo edo agiri bidezko prozedura; eraginkortasunean eragin dezaketen produktuen isuriak ez dira tratamenduko instalaziora eramango.

i) Pabiloien barruan zolak garbitzean sortutako ura tratamendu-lerrora bideratuko da.

j) Arazketa-prozesuan sortutako hondakin solidoak eta lohiak aldizka aterako dira instalazioa behar bezala ibil dadin. Biltegitratu egingo dira hondoan hustubiderik ez duten biltegi iragazgaitzetan.

k) Inoiz ez dira pilatuko euri-uren jariatzearen ondorioz ibilgu publikoa kutsatzeko arriskua egon daitekeen eremuetan.

l) Larrialdi-egoeretan, babes zibileko legeria aplikatuko da eta bertan ezarritako betekizun guzti-guztiak bete beharko dira.

m) Arazketa-instalazioak zuzen ustiatzeko eta istripuen ondoriozko isurketak prebenitzeko hartu diren segurtasun-neurriak abian jartzeko behar diren bitarteko egokiak jarriko ditu titularrak.

n) Era berean, erregistro bat eduki behar da, eta bertan, aldizka egindako mantentze-lanen berri eman behar da, baita antzemandako gorabeherena ere.

o) Ingurunearen edo jardueraren kontrolaren gainean kalteak eragin ditzakeen gorabehera edo ezohiko gertaeraren baten aurrean (besteak beste, ustekabeko isuria egitea eta/edo isurtzeko muga-balioak gainditzea), sustatzaileak gorabehera edo ezohiko gertaera horren berri eman beharko du Ingurumen Sailburuordetzan.

p) Gertakari edo arazo larriren bat edo ustekabeko isuriren bat egonez gero, Ingurumen Sailburuordetzari jakinarazteaz gain, SOS DEIAK eta Udalari ere jakinarazi beharko zaie berehala. Ondoren, eta gehienez ere 48 orduko epean, ezbeharrari buruzko txosten xehatua bidali beharko da Ingurumen Sailburuordetzara. Txosten horretan, gutxienez, honako datu hauek agertuko dira:

- Gertakari mota.
- Gertakaria non, zergatik eta zer ordutan gertatu den.
- Iraupena.
- Ustekabeko isurketa izanez gero, emaria eta isuritako gaiak.
- Mugak gaindituz gero, isurketen datuak.
- Eragindako kalteak, gutxi gorabehera.
- Hartutako neurri zuzentzaileak.
- Berriro gerta ez dadin aurreikusitako neurriak.
- Prebentziozko neurriak eraginkortasunez aplikatzeko ezarritako epeak.

q) Instalazioek suteen aurkako babesari buruz indarrean dagoen araudian ezarritako betekizunak betetzen dituztela egiaztatu egin beharko da. Betebehar hori betetzen dela egiaztatzeko, erakunde eskudunek emandako egiaztagiria aurkeztuko zaizkio Ingurumen Sailburuordetzari.

F.4.– Jarduera aldi baterako etetea.

Jarduera aldi baterako uztea eskatuz gero, Industriako Isurketen Erregelamendua onartzen duen Errege Dekretuaren (urriaren 18ko 815/2013) 13. artikuluan arautu bezala, Recypilas SAK, aldi baterako uztearen eskabidearekin batera, dokumentu bat bidali beharko du instalazioa jardunik gabe egonda ere aplikagarriak zaizkion ingurumen-baimen integratuko kontrolak eta baldintzak nola beteko dituen adierazteko.

Era berean, jarduera berriz hasi baino lehen, instalazioen funtzionamendu ona ziurtatu beharko da, ingurumenean eragina izan dezakeen edozein isurketa edo emisio saihesteko.

G) Baldin eta araudi berria indarrean jartzeak edo barneratzen diren sistemen egitura eta funtzionamenduari buruzko ezagutza berri esanguratsuetara egokitu beharrak hala egitea gomendatzen badute, babes- zein zuzenketa-neurriak eta ingurumena zaintzeko programa aldatu ahal izango dira, bai neurtu behar diren parametroen kasuan, bai neurketaren aldizkakotasuna eta aipatutako parametroek hartu behar duten tarteari dagozkion mugen kasuan. Era berean, hala neurri babes- eta zuzenketa-neurriak nola ingurumena zaintzeko programa alda daitezke, jardueraren sustatzaileak hala eskatuz gero edo ofizioz, ingurumena zaintzeko programan lortutako emaitzetan oinarrituta.

H) Urtean behin, martxoaren 31 baino lehenago, Recypilas SAK aurreko urtean atmosferara eta uretara egindako isurketei eta sortutako hondakin mota guztiei buruzko datuen ingurumen-adierazpena igorriko dio Ingurumen Sailburuordetzari, E-PRTR-Euskadi Kutsatzaileen Emisio eta Transferentzia Inbentarioa egiteko eta eguneratuta edukitzeko, 508/2007 Errege Dekretuarekin eta Ingurumena Zaintzeko Programarekin bat etorritik.

Informazio hori lekualdatzeko, IKS-eeM sistemaren erakundeentzako bertsioa erabiliko da (www.eper-euskadi.net webgunean eskuragarri), hots, Ingurumen eta Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Sailaren Ingurumen Informazioa Kudeatzeko Sistema.

Datu horietako batzuek Euskal Autonomia Erkidegoko Ingurumenean Eragina duten Jardueren Erregistroa osatuko dute, eta erregistro hori transakzio-basea izango da, informazioa Europako Ingurumen Agentziaren erregistroetara bidaltzeko (E-PRTR-Europa erregistroa).

Ingurumen-adierazpena agerikoa izango da, uztailaren 18ko 27/2006 Legearen xedapenekin bat etorritz. Lege horren bidez, informazioa eskuragarri izateko, herritarren partaidetzarako eta ingurumen-gaietan justizia eskura izateko eskubideak arautzen dira (2003/4/EE eta 2003/2005/EE Zuzentarauak jasotzen ditu). Horrez gain, uneoro bermatu beharko da Datu Pertsonalak Babes-terako Lege Organikoan (abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoa) ezarritakoa betetzen dela.

l) Instalazioetan aldaketarik egin ahal izateko, aldez aurretik honako helbide elektronikoko hone-
tan eskuragarri dagoen inprimakia bete beharko da:

http://www.ingurumena.ejgv.euskadi.eus/contenidos/faq/aai/es_faq/adjuntos/cuestionario_modificaciones.doc

Erakunde honen onespina ere beharko da, abenduaren 16ko 1/2016 Legegintzako Errege Dekretuak onartutako Kutsaduraren prebentzio eta kontrol integratuari buruzko uztailaren 1eko 16/2002 Legearen testu bateginaren 10. artikuluan ezarritakoaren ondorioetarako.

Industriako Isurpenen Erregelamendua onartu eta Kutsaduraren Prebentzio eta Kontrol Integratuari buruzko uztailaren 1eko 16/2002 Legea garatzen duen urriaren 18ko 815/2013 Errege Dekretuaren 14.1 artikulua ezartzen ditu aldaketa funtsezkotzat jotzeko irizpideak.

Nolanahi ere, aipatutako urriaren 18ko 815/2013 Errege Dekretuaren 14.2 artikuluan zehaztu-takoarekin bat etorritz, irizpide horiek orientagarriak dira, eta ingurumen-organoak kalifikatuko du eskatutako aldaketa, funtsezkotzat edo ez-funtsezkotzat jota, abenduaren 16ko 1/2016 Legegintzako Errege Dekretuak onartutako Kutsaduraren prebentzio eta kontrol integratuari buruzko Legearen testu bateginaren 10. artikuluan ezarritako irizpideekin bat etorritz.

Era berean, proiektua aldatzen den kasuetan, aplikatzekoa izango da Ingurumen Ebaluazioari buruzko abenduaren 9ko 21/2013 Legearen 7.1.c) eta 7.2.c) artikuluetan xedatutakoa.

Baldin eta aldaketak lurzoru berria okupatzea aurreikusten badu eta aipatutako lurzoruak lurzoru kutsa dezaketen jarduerak edo instalazioak baditu edo izan baditu, hartu beharreko koka-lekuaren lurzoru-kalitatearen deklarazioa eduki beharko dute aldaketa gauzatu aurretik, Lurzorua ez kutsatzeko eta kutsatutakoa garbitzeari buruzko ekainaren 25eko 4/2015 Legean ezarritakoa-
rekin bat etorritz.

Hirugarrena.— Ingurumen-baimen integratuaren berrikuspina ofizios egingo da kasu hauetan:

a) Instalazioak sortutako kutsadura dela eta, komeni bada isurketen muga-balioak berrikustea, edo beste batzuk ezartzea.

b) Isurtzeak nabarmen murriz daitezke gehiegizko kosturik izan gabe erabil daitezkeen teknika-rik onenetan egindako aldaketa handien ondorioz.

c) Prozesuaren edo jardueraren funtzionamendu-segurtasuna dela eta, beste teknika batzuk erabiltzea beharrezkoa bada.

d) Arroko erakundeak, urei buruzko legedian araututakoaren arabera, ingurumen-baimen inte-gratua berrikustea justifikatzen duten inguruabarrak daudela uste badu, Estatuko Administrazio Orokorrak kudeaturiko arroetako jabari publiko hidraulikora egindako isurpenei dagokienez. Kasu horretan, arroko erakundeak, txosten lotesle bidez, organo eskudunera joko du ingurumen-baimen integratua eman dezan, gehienez ere hogeit eguneko epean berrikuste-prozesua hasteko.

e) Instalazioari aplikagarri zaion sektoreko legediak hala eskatzen badu, edo abenduaren 16ko 1/2016 Legegintzako Errege Dekretuak onartutako Kutsaduraren prebentzio eta kontrol integra-

tuari buruzko Legearen testu bateginaren 22.3 artikuluari jarraikiz, ingurumen-kalitateko arau berriak edo berrikusiak betetzea beharrezkoa bada.

f) Aplikatu beharreko araudi berria indarrean jartzen bada.

g) Ingurunearen egitura eta funtzionamenduari buruzko ezagutza garrantzitsu berrietara egokitzeko beharra ikusten bada; bereziki, inplikaturako sistemen hauskortasuna areagotzen dela hautematen bada.

h) Ingurumena zaintzeko programan jasotako emaitzen edo bestelako oharren arabera, ingurumen-inpakturako ezarritako babes-, zuzenketa- edo konpentsazio-neurriak akastunak direla egiaztatzen bada.

i) Abenduaren 16ko 1/2016 Legegintzako Errege Dekretuak onartutako Kutsaduraren prebentzio eta kontrol integratuari buruzko uztailaren 1eko 16/2002 Legearen 26. artikuluko 1., 2. eta 3. zenbakietan ezarritakoarekin bat etorritz egindako azterketa eginda, aldatu egin behar dela ondozriotzatzen bada.

Ingurumen-baimen bateratua berrikusteak ez dakar kalte-ordaina jasotzeko eskubidea, hala ezarrita baitago abenduaren 16ko 1/2016 Legegintzako Errege Dekretuak onartutako Kutsaduraren prebentzio eta kontrol integratuari buruzko Legearen testu bateginaren 26.5 artikuluan.

Laugarrena.– Recypilas SA enpresak Ebazpen honen xede den hondakinak kudeatzeko jardueran titulartasun-aldaketarik eginez gero, aldaketa hori Ingurumen Sailburuordetzan jakinarazi beharko du, hark onar dezan.

Bosgarrena.– Baimen honek balioa galduko du honako kasu hauetan:

– Ebazpen honen seigarren atalean ezarritako baldintzak betetzen direla egiaztatzen ez badu epearen barruan, baldin eta interesdunak ez badu behar bezala justifikatuz epea luzatzeko eskatzen.

– Recypilas S.A. enpresaren nortasun juridikoa iraungitzea, indarrean dagoen araudian ezarritako kasuetan.

Horrez gain, lehorretik itsasora isurtzeko baimena ezeztatu ahal izango da, Kostei buruzko Legearen (uztailaren 28ko 22/1988) 78. eta 79. artikuluetan ezarritako baldintzetan.

Seigarrena.– Alderdi hauei sei hilabeteko gehieneko epean erantzuteko eskatzea Recypilas SAri:

– Kudeatzaile baimenduari ematen zaizkion sortutako hondakinak behar bezala identifikatu eta sailkatzen direla justifikatu beharko du, bereziki hondakin arriskutsuen izaerari eta arrisku-ezagarriei dagokienez, betiere honako zerrenda honetan ezarritako irizpideekin bat etorritz: Europako Hondakin Zerrenda, 2014ko abenduaren 18ko Batzordearen Erabakiz argitaratua, zeinaren bidez aldatu egiten baita hondakinen zerrendari buruzko 2000/532/EE Erabakia; eta 1357/2014/EB Erregelamendua, Batzordearena, 2014ko abenduaren 18koa, zeinaren bidez ordeztzen baita Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2008/98/EE Zuzentarauaren III. eranskina (zuzentarau hori hondakinei buruzkoa da eta zuzentarau jakin batzuk baliogabetu zituen). Hori egiaztatu ondoren, eguneratu egingo dira baimen honetan jasota eta izapidetzeko orduan indarrean zeuden identifikazioa eta sailkapena.

Halaber, sei hilabeteko epean:

– 110/2015 Errege Dekretuaren 37.5 artikulua betez, proposatutako proba egingo da balioztatzeko helburuak betetzen dituztela egiaztatzeko. Hartarako, froga horretarako aurkeztutako dokumentazioa beteko dute, baita proba- edo saiakuntza-proiekturako Nekazaritza, Elikadura eta Ingurumen Ministerioak, Hondakinen arloko Koordinazio Batzordeak proposatuta, ezarritako gutxieneko irizpide homogeenok ere.

[Http://www.mapama.gob.es/es/calidad-y-evaluacion-ambiental/temas/prevencion-y-gestion-residuos/flujo/aparatos-electricos/Default.aspx](http://www.mapama.gob.es/es/calidad-y-evaluacion-ambiental/temas/prevencion-y-gestion-residuos/flujo/aparatos-electricos/Default.aspx)

Tratamendu-instalazioak Organo honi jakinaraziko dio proba hori egin aurretik, eta, tratatu beharreko hondakinen mota eta kopuruaz gain, saiakuntzak egiten zenbat denbora emango duten ere zehaztuko du.

– Lurzorua babesteari dagokionez, lurzoruen dokumentu bakar bat aurkeztu beharko da, ikerketa-lanak eta lurzoruaren kalitatea lehengoratzeko lanak egin ditzakeen erakunde egiaztatu batek eginga. Dokumentu horretan, hauek jasoko dira: lurzoruaren egoerari buruzko aldizkako txostena, oinarritzako txostena, eta lurzoruen eta lurpeko uren kontrol eta jarraipeneko dokumentuak. Horiek guztiak eskatzen dira «Lurzoru kutsatuen eta lurpeko uren gaineko arauzko eskakizunak aplikatzea ingurumen-baimen integratua behar duten instalazioetan» zirkularrean, zeina D.2.5.– Lurzorua babesteko baldintzak izeneko atalean aipatzen baita. Dokumentuari «058» kodea esleituko zaio, eta 6 hilabeteko epean entregatu beharko dute baimena jasotzen denetik hasita. Dokumentu hori instalazio osorako izan ahalko da, Indumetal Recycling SAren eta Recypilas SAren prozesua barne hartuta.

Zazpigarrena.– 16-I-01-000000000396 erregistro-kodea esleitzea Recypilas SAk Erandioko Cantera errepideko 11n ustiatutako instalazioari. Hona hemen kokapena: UTM 30N ETRS89, X: 504132 Y: 4793938 Z: 3,47 m.

Zortzigarrena.– Ingurumen-baimen integratu honetan ezarritako baldintzak ez betetzea arau-hauste astun edo oso astun gisa tipifikatuta dago Kutsaduraren prebentzio eta kontrol integratuari buruzko uztailaren 1eko 1/2016 Legegintzako Errege Dekretuaren 31. artikuluari jarraituz, eta aipatutako uztailaren 1eko 16/2002 Legearen 32. artikuluan jasotako zigorrek ezartzea ekar dezake.

Bederatzigarrena.– Ebazpen honen edukiaren berri ematea Recypilas SAri, Erandioko Udalarri, ingurumen-baimen integratua emateko prozeduran parte hartu duten erakundeei eta gainerako interesdunei.

Hamargarrena.– Ebazpen honek ez dio amaiera ematen administrazio-bideari, eta, beraren aurka, interesdunek gora jotzeko errekurtsioa aurkez diezaioke Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitzako sailburuari, hilabeteko epean, ebazpen hau jakinarazi eta hurrengo egunetik hasita, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 121. eta hurrengo artikuluetan xedatutakoaren arabera.

Vitoria-Gasteiz, 2017ko azaroaren 3a.

Ingurumeneko sailburuordea,
MARIA ELENA MORENO ZALDIBAR.